

Guaixe.eus



Sakandar Oi!
fanzinearen lehen
zenbakia kalean




Sakanerria >> 17

Ihabarko antzerkitaldeak Arakilgo
Udalaren omenaldia jaso du
ibarreko egunean. Antzezlan berria
prestatzen hasi dira



Kultura >> 23



Guaixeren
udako
argazki
lehiaketa

Irailaren 9ra arte
aurkeztu daitezke

>> 23

Arakilek ia
800.000 €-ko
aurrekontua
du aurten

>> 7

2016 Bideari
Gurdi Bideak
hartuko dio
lekukoa

>> 6



Sakanako Garapen Agentziaren eta Sakanako Enpresarien Elkartearen arteko hitzarmena sinatzeko unea.

Elkarlana eta koordinazioa

>> 3

Sexu indarkeriaren
kontrako protokoloa
indarrean Etxarrin

>> 7

Agorrileko agenda
zabala erdiko
orrialdeetan

>> 9-16



Hiru eskoletako
lanetarako diru-
laguntzak iritsi
dira

>> 6



Txep, hiruko
baten festa
giroko
bertsioak

>> 22



Iruñerriko
Itzulia Etxarrira
iritsiko da
ostegunean

>> 19



Irailaren 2an hurrengo Guaixea

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!





**DEKOVEN
NAVARRA**
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**





Marian ZORIONAK!!
Hobe listo, ahaztu beño. Egun ona izen.

ZORIONAK Harriet!!
Zure 10. urtebetetzea iritsi da eta gu zurekin eta zure ondoan ospatzeko prest. Izan ezazu egun zoragarria eta disfrutatu. Etxekoen partez, asko maite zaitugu!!!

ZORIONAK Uxue !!!
Primeran pasa eta asko disfrutatu zure urtebetetze egunean. Asko maite zaitugu; aita, ama, Maialen, Patxi eta Iker.

ZORIONAK Ekain !!!
Egun politte pasa. Aita, ama eta Belatz.

Jon, Adur, Aritz eta Joanes ZORIONAK laukote, eta ongi pasa eguna!!

Aritz ZORIONAK pilotari, eta ongi pasa zure 13. urtebetetzean!!

Oporretan gaude

Hurrengo Guaixea irailak 2an izango da
Bidali zure agurrak zorion@guaixe.eus-era

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€



Iturmendiko larrain egunean trilladora zaharrarekin aritu ziren garia eta lastoa banatzen.



Bakaikuko festetan dantza emanaldi bikaina egin zuten Etorikizuna taldekoek.



Olaztikoko festetan giro paregabea jartzeaz arduratu da Olaztikoko La Cigarra txaranga.



Gaske koadrilek gazta eta piperra jarri diete Irurtzungo festei.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Ihabarko antzerki taldeari omenaldia
- Ricardo Lopez de Sabandorekin hizketan
- Txep taldeaz

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

SAKANA



Hiru erakundeen ordezkariak, sinatzen.

Argindar mozketak txikien kontrako plana

Sakanako Enpresarien Elkartek Manu Aerdik lehendakari-ordeari jakinarazitako kexetako bat da argindar horniduraren mozketak txikiak

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresarien Konfederazioak (NEK) eta Iberdrolak elkarlan hitzarmena sinatu dute. Haren helburua da enpresen argindar horniduran mozketak laburrak eragozteak eta haiek ekoizpen prozesuetan dituzten eraginak murriztea. Akordioa Ekonomia Garapenerako Lehendakari Orde Manu Aierdik, NEK-eko presidente Jose Antonio Sarriak eta Iberdrolako Nafarroako banaketa buru Eduardo Ryanek sinatu dute. Guztia behar bezala egiten dela zehazteko jarraipen batzordea eratu dute.

Adostutakoaren arabera, Iberdrolak Industria, Energia eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusiari goi eta tentsio ertaineko lineetan egindako lanen berri eman beharko dio urtero. Bestalde, NEK-ekin koordinatuta, Iberdrolak hainbat eskualdetan jardunaldiak antolatuko ditu, horietako bat Sakanan. Saio horiek elektrizitateko mantentze lanez arduratzen diren langileei, instalazio enpresei, ingeniariari eta abarri zuzenduta egon da. Haietan argindar mozketak laburren zergatia azaldu eta instalazioak babesteko modu egokiak zein diren azalduko dira. Iberdrola, aldi berean, aholkularitza behar duten enpresak bisitatzeko konpromisoa hartu du.

ZERGATIAK ETA ONDORIOAK

Enpresek jasaten dituzten argindar mozketak txikiak hainbat arrazoiengatik sortzen dira: atmosferako fenomenoengatik, hegaztiengatik, banaketa sarean izandako matxurengatik, partikularren eta beste batzuen azpiegiturretan dauden matxurengatik... Horregatik, ia ezinezkoa da guztiz ezabatzea. Lege-diaren arabera haiek murrizteko ardura banaketa enpresena, bezeroena eta ekipo hartzaileen ekoizleena da. Enpresak gero eta automatizatuagoak daude eta horretarako kontrol sistema elektronikoak ezarri dituzte. Argindar mozketen eragina handiagoa izan dezakete babes egokirik ez badute.

SAKANA

Elkarlana eta koordinazioa



Aitor Karasatorre eta Francisco Lopez de Alda sinaduraren unean, erakundeen beste kideek lagundurik.

Sakanako Garapen Agentziak (Aitor Karasatorre) eta Sakanako Enpresarien Elkartek (Francisco Lopez de Alda) elkarlan akordioa sinatuzuten ostiralean. Bierakundeak elkarlanean ari dira. Baina akordioak zegoen harremanari itxura eman eta "lanak aurrera ateratzea bermatuko du". Arbizuko Utzubar industrialdean dagoen Utzugane zentroan daude Sakanako Garapen Agentzia (SGA), Ceder-na-Garalure eta Sakanako Enpresarien Elkartea (SEE). Hiru erakundeak elkarlanean aritzen dira. SGako Iker Manterolak azaldu digunez, SEErekin sinatutako hitzarmena "zerbitzu hobea eskaintzeko antolakuntza hobetzeko bidea da". Aurki antzeko akordioa sinatuko du SGak Garalurrekin.

Manterolak azpimarratu du

Utzuganen aterpeaduten hiruekonomia eragileen arteko lanen banaketa oso argia dela euren artean. Baina, "jende askok bakoitzak zein zerbitzu eskaintzen dituen argi ez zuela ikusten genuen". Horregatik, Utzuganeko web orria prestatzen ari dira. Hartan "eragile bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak azalduko dira". Hala, beharren bat duten pertsonen nora jo argi eta garbi izanen dute. Bestelako euskarririk behar izanen den ere aztertuko dute.

Aurrera eramaneen direnak

SEE eta SGA hiru arlotan ariko dira elkarlanean. Prestakuntza arloan enpresen kudeaketa hobetzeko bi ikastaro diseinatu, antolatu eta egingen dituzte. Ikastaro horiek 50 langile baino gutxiago

dituzten industriako enpresei zuzenduta egon da eta 20 bat ordutako iraupena izanen dute.

Enpresen lehiakortasuna hobetzeko bi neurri aurreikusi dituzte. Alde batetik, industriako enpresen teknologia gaitasunari (makineria, prozesua, irismena...), produktuei eta eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko inkesta diseinatzea. Diseinuaren ondoren bierakundeek behin betiko inkesta adostu eta SEEko kideen artean informazio bilketa pilotua egingen dute elkartekoek. Bestetik, industria enpresek dituzten beharraz atzemateko inkesta diseinatu dute eta aukeren eta mehatxuen analisisa osatuko dute.

Bierakundeek bat egingen duten azken lan arloa erakunde publikoan eta enpresa ehunaren arteko

elkarlana hobetzea eta sinergiak sortzea izanen da. Horretarako bierakimena sustatuko dituzte. Lehenik, industria enpresekin haien eta Altsasuko Lanbide Heziketa ikastetxearen arteko sinergiaren analisia eta elkarlan proposamenak egitea. Bigarrenik, ibarreko enpresen eta erakundearen (udalak, mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua) arteko arazoak identifikatuko eta azalduko duen agiri zehatza idaztea. Udal esparruan ekonomia sustapena hobetzeko proposamenak ere zerrendatuko dituzte.

Sakanako Plan Estrategikoa (SPE)

Hura diruz hornitzeko akordioa udaberriakaberan sinatzen eta ordutik hura garatzeko SGaren lantaldea bi langiletakoa izate-tik seikoa izatera pasa da. Udan ez dute atsedenean hartuko. Langile berriak planaren mamiabarneratzen ari dira. Manterolak gatzigatu duenez, "horrelakoe-tan emaitza ikusgarriak oso epe luzera izaten dira. Egunerokotasunean emaitza txikiak lortzen dira. Hau ez da ezer diote batzuk. Baina jarri gaitzen duela lau urteko egoeran... Elkarlanerako zer giro zegoen? Orain SPE puntu komunak adostuta ditugu eta elkarlanerako giro bat sortu da". Horregatik, "oso balorazio positiboa" egin du Manterolak.

Sakanako Mankomunitateak kirol monitoreak kontratatu nahi ditu bere jardueretarako:

Mank
s a k a n a

1. Musikoterapia ikastaroa (kirol egokitua)
2. Igeriketa eta soinketa ikastaroa (kirol egokitua)
3. Emakumeen atletismo eskola
4. Aizkora eskola
5. Triatloi campusa
6. Futbol campusa
7. Piragua eta espeleologia ikastaroa
8. Eskalada ikastaroa

Eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 5ean bukatuko da 14:00tan. Eskaera INEMen edo Sakanako Mankomunitateko erregistroan egin. Deialdien oinarriak ikusteko: www.sakana-mank.eus



Aingeru Mikeo

Ebatzi gabeko matematika-eragiketa

astekoa

Aurreko batean, aurkezpen interresgarri bat entzuteko aukera izan nuen, hain zuzen ere, Ana izeneko aditu batek Copernicus lurra behatzeko Europako satelite-sarearen azpiegituraren egitasmoaz hitz egin zuen.

Satelite horien kamera, radar eta sentsoreen bidez, bost egunero, lurraren, airearen eta itsasorearen kolorearen, berotasunaren

eta altueraren gaineko informazio xehea eskuratzetik izan da. Hartara, landarediaren zikloen, kutsaduraren, uholdeen, elurteen, eta abar luze bati buruzko informazioa izanzen dugu, 20 cm-ko bereizmeneko irudiak barne. Alabaina, Anak argiro azaldu zuenez, lilura sortzen digun teknologiaren atzean, nagusiki, xede militarra omen dago; guz-

tion zergen bidez finantzatzen dena, jakina.

Geroxeago, irratian, elkarrizketa bitxia entzun nuen, zehazki, Mariajexux izeneko emakume bati egina, nazioarteko matematikarien kontseilu bateko lehen-dakari izendatu zutelako. Hark, era xumean bezain argian, matematikak gizartearen edozein arlori egiten dizkion ekarpen garra-

tzitsuak aipatu zituen, esaterako by-passen diseinurako, odolaren mugimenduaren eta presioaren aldaeren eredu zehatzuz, edo ehun edo oihal berriak sortzeko, lehengaien tasunen eta atomoen adierazpenak taxutuz.

Laburbilduz, zenbakiak eta testuak baliatuz, edozein aurrerapen teknologikorako eta adierazpen zientifikorako matemati-

ka ezinbestekoa da. Bi ideia horiek buruan dantzan nembilela, halakoxe burubidea otuzitzaizdan, ea Mariajexuxek matematika algoritmo bat garatzerik izanen ote lukeen Copernicus bezalako proiektuetan helburu militarre bideratzen den dirutza hori munduko gizateriaren premiarik larrienak konpontzera bidera dadin.

hara zer diren

2015. urtea, historian desplazatu gehien izan dituen: 65,3 milioi desplazatu

Zein da historian desplazatutako pertsona gehien izan duen urtea? 2015. urtea. 65 milioi pertsonatik gora daude haien etxetatik halabeharrez alde eginda. Inoiz baino gehiago. 65,3 milioi horietatik, 40,8 milioiek alde egin behar izan dute haien etxetatik, nahiz eta haien lurraldeetako mugetan egon. 21,3 milioi errefuxiatuak dira (2014an baina 1,8 milioi gehiago) eta 3,2 milioi, herrialde industrializatuetan

aurkitzen ziren asiloeskaeraren ebazpenen zain.

Argi ulertzeko: 113 gizakitik, bat desplazatua da.

Guztion ekintza beharrezkoa da, erantzun kolektiboak bilatu eta aurkitzea. Erabateko aldaketa ezinbestekoa da, bestela, zenbaki hauek gora egiten jarraituko dute. Egoera erabat dramatikoa da hainbat tokitan: Iraketik ihesi, Sirian babes bila ateratakoen egoera, esaterako. Zenbate-

tarainokoa izango da gizaki hauen etsipena, Siriara joaten direnerako babes bila?

Preseski, Siria (4,9 milioi), Afganistán (2,7 milioi) eta Somalia (1,1 milioi) munduko errefuxiatuen erdia sortzen duten hiru lurralde dira. Eta uste guztien kontra, ez da Europa, hain zuzen ere, babes ematen dien lurraldea, nahiz eta horretarako deia egina izan; alderantziz, mugan dauden gainontzeko lurraldeak dira errefuxia-

tuak jasotzen dituzten herrialdeak: Turkian 2,5 milioi errefuxiatu daude, Etiopian 600.000 errefuxiatu eta Libanon, hiru biztanletik bat errefuxiatua da.

Hala ere, ezin ahaztu dezakegu Ceuta eta Melilla gertatzen ari dena. Bertan Espainiak praktikatzen duen "itxultzea" (deboluzioa) gelditu beharra dago, izan ere, ez baitago neurri hori babes-ten duen inolako nazioarteko legerik.

Haurrak, munduko errefuxiatuen %51 baino gehiago dira. Iaz, 98.400 asilo eskaera baino gehiago aurkeztu zen babesik gabeko adin txikikoentzat.

Eta egoerak ez du horretan gertatzeko itxurarik, ezta gutxiagora joateko itxurarik ere.

Zer mundu mota ari gara gartzetzen? Norendako modukoa? Errefuxiatuendako ez, behintzat. Norbaitek babes gaitzala.

Sakanako Immigrazio Zerbitzua

objektibo tik



objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

Guaixe



ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Garbiñe Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
ZUZENTZAILA: Felix Altzelai
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK • Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ETA JAIETAN... ZER?



JAIETAN ERRESPETUZ BIZI GARA



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



sakanerria >>

AGORRILEAN ALKATE BERRIA: Olatzagutiko Udalak agorrilean egingen duen bilkuran alkatetza eskuz aldatuko da Gurutze Rodriguezek Mikel Azkargortari pasako

dio lekukoa. EH Bilduk Patricia Fernandez ordezkoa aurkeztu beharko du. Jorge Esparza UPNren zinegotzi berria da

>> **Etxarri Aranatz / Bakaiku / Iturmendi / Urdiain**

Bernoako galtzada azalarazteko auzolandegi berria

14 gazte atzerriarrek batera nahi duten sakandar guztiek parte hartu dezakete galtzada berreskuratzeko lanetan agorrilean

Italiako, Errusiako, Frantziako hiruna gazte eta Alemaniako, Espainiako, Turkiako, Txekiako eta Mexikoko bana. 14 guztira; 17 eta 28 urte arteko 12 neska eta 2 mutil atzerriar ekarriko ditu De Amicita gobernuz kanpoko erakundeak (GKE) Sakanara (joan den urtean hamar neska egon ziren). Haiekin batera begirale bat etorri da. Guztiak ere aitzurra eta erratza hartuta Bernoako galtzada agerian uzteko lanean ariko dira. Joan den urtean aurreneko aritu ziren Sakana erdialdea eta Gipuzkoa lotzen dituen harribidea berreskuratzen eta aurreneko lanean segida izanzen dute. Udal bakoitzak dagoeneko zein zati azaleratu zehaztu du.

Sakandarrek ere boluntario gisa auzolandegi horretan parte hartzeko aukera izanzen dute. Lau udaletatik parte hartzeko gonbi-

dapena luzatu dute. Bertako ondarea berreskuratzeaz aparte atzerriko gazteekin harremana izateko aukera baliatzeko gonbidapena egin dute. Auzolandegian parte hartu nahi duenak lau herrietako udaletxe batera joatea besterik ez du.

Lau herrietan

GKErekin etorritako gazteak lau herrietan txandaka ariko dira lanean. Agorrilaren 12an, ostiralez, iritsiko dira. Hurrengo egunean lan egingen duten gunea izanen dute. Bi egun jai izan ondoren, agorrilaren 16an eta 17an, asteartean eta asteazkenean, Iturmendiko zatian ariko dira lanean. 18an, ostegunean, Iturmendi eta Urdiain artean. Hurrengo bi egunetan, 19an eta 20an, Urdiainen lan egiteko txanda izanzen da. Bi egunetako atsedenaldiaren ondoren, agorrilaren 22an eta 23an Etxarri Aranatz azaleratuko dute galtzada. Azken bi lan egunak, 24 eta



Lagun talde bat Bernoako galtzadan jo eta su.

25, Bakaikun emanen dituzte. Gazte taldea hilaren 26an despedituko da Sakanatik.

Bernoako galtzada

Mandazainek erabiltzen zuten galtzada, Lizarraldearen eta kostaldearen (Donostia eta Pasaia) arteko joan-etorriak egiteko. Bakedanotik Santa Marinara eta handik Iturmendira doa (14 km). Aritzagatik basora sartu eta Sakana Ataunekin lotzen du (12 km). Etxarri Aranatz eta Bakaikuko beheko basotik doan adarrak Bernoako galtzadarekin Iturmendiko Aiz-

kibel-Mandabita dermioan bat egiten du.

Iturmendiko basoan kontrabandoaren kontra aritzen ziren guardien txabolaren azarnak ikus daitezke. Aduana ere bazegoen. Bakaikuko basoan galtzada zati batzuk ikusten dira, baina traktoreek hondatu dituzte. XIX. mendean Lizarrustiko errepidea egitearekin galtzadak garrantzia galdu zuen.

Jatorriari buruzko hipotesi batek dio bideak aurre-historiakok direla, haien aldamenen trikuharriak eta bestelako monu-

mentuak daudelako. Beste batek dio Sakana zeharkatzen zuen Bortole-Astorga erromatar galtzadako adar bat izan zitekeela. Iparhegoa trazatua duten galtzada horiek zaharberritu eta zabaltu egin zituzten Burundako eta Etxarri Aranatzko mandazainek XVIII. mendean. Urdiaingo almintek agerian utzi zuen herria eta Ataun lotzen dituen galtzada 2014an. Urriztik auzotzetatik abiatuta ibilbidea prest dago. Iturmendik 90eko hamarkadaren bigarren zatian garbitu eta seinaleztatuta zuten galtzada.

SAKANA

Ikastetxeetako 10 lanetatik 4 egingen dira

Sakanako udalek Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiari 207.878,06 balioagatik lanak egiteko eskaera egin zioten. Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak diruz laguntzeko eskaerak ziren. Ebazpena argitaratu berri da eta hiru udalek lau lan egiteko 51.345,58 euro jaso dituzte, aurkeztu dituzten lanen %65. Hona lanak onartu dira: Uharte Arakilgo San Migel eskolan bi geleta-



ko berokuntza instalazioa egokitzeta (3.102,01 €) eta zureria finkoa irekigarri batekin ordeztea ikasgeletan (15.748,66 €); Lakuntzako Luis Fuentes eskolako teilatua konpontzea (5.141,67 €) eta Altsasuko Zelandi eskolako beheko solairuko komunak berritzea (51.345,58 €).

128.884,85 euroko balio adutensei ikastetxeetako lanak diru-laguntzarik gabe gelditu dira. Haiekin lehentasun zerrenda osatu dute departamentuan. +www.guaixe.eus

SAKANA

Ibarra hiru egunez gurdi bide

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren barruan Itsasgileak programa garatzen ari dira. Horren barruan Burgos eta Pasaia 18 etapetan lotuko dituzte. Albalas Itsas Kultur Faktoriak eta Quintanar de la Sierrako Cabaña Real de Carreterosek Demandako mendizerrako behiek eta idiz osatutako hiru gurdirekin egingen dute bidea. Albalas itsas faktoriara Quintanar de la Sierran artisauki egindako bikea eta alkitrana eramanen dute. Material horiek San Juan baleontziaren erreplikaren eraikuntzan erabiliko dituzte.



Gurdi bideak Sakana hiru egunetan zeharkatuko du. 11. etapan Egilaztik Altsasura arteko bidea egingen dute irailaren 10ean (16 km). 12. etapa Altsasu eta Uharte Arakil artekoa izanzen da, irailaren 11n, igandean (22,4 km). 13. etapan Uharte Arakil eta Irurtzun arteko bidean emanen dute, irailaren 12an, astelehenean (15,4 km). Hurrengo egunean Irurtzundik Lekunberri-rantz abiatuko dira. Informazio guztia www.gurdi-bidea.com web gunean dago. +www.guaixe.eus

>> Altsasu

2016 bideko 19. etapa etzi

Gipuzkoa inguratzen duen 2016 bidea ekimena antolatu dute. Pasa den igandean etapa bat Altsasura iritsi zen eta etzi, Altsasu Ataunera bitarteko etapako abiapuntu bihurtuko da. 9:00etan aterako dira mendizaleak Dantzalekutik, San Joan baleontziara iketzeko egurrezko piezak lantzeari buruzko erakusketa ikusita. Intxusburu trikuharrian Jose Migel Barandiaranek indusketa lanean nola lan egingen duen antzeztuko dute. Zelatamunon Altsasuko inauterien antzezpina egingen da. Ondoren, Lizarrustiko parketxera iritsiko dira. Ataun San Gregorio bisitatuko dituzte. Izena ematea: www.dss2016.eu. +www.guaixe.eus

Agentzia Bakarra

Allianz Aseguruak

HNOS. SAYAS MAZQUIARAN S.L.

etxarri@sayasmaz.com
948 111 411
Larrañeta 19 behea
ETXARRI ARANATZ

EZ-ETZA

orain freskoan espezialista

Igoa arraindegia

948 460 111 - Arkhetobide kalea - Etxarri Aranatz

HOSTO GORRI altzariak

altzariak eta kortinak

Zugarreta 7 · Etxarri Aranatz
948 460 359 · 679 414 731
www.hostogorri.com

» Arakil

Satrustegira begirako aurrekontua

Arakilgo Udalak aurten 795.822 euroko aurrekontua izanen du. “Hori Satrustegin egin behar dugun lanagatik da. Orain lanak egiteko finantziazioaren zain gauden”, azaldu digu Gregorio Santesteban Nuñez alkateak. Izan ere, Toki Administrazio Departamentuak emanen diren diru-laguntza-
ren kopurua ez die zehaztu. “Lanak aurten hasi behar ditugu, baina ez dugu bukatzeko epe mugarik”. Urte askoren ondoren Satrustegiko kaleak eta sareak konponduko dituzte. Izurdiagako trenbide-pasako lanak baliatuz, udalak herriko ur sarea berritu du (92.000 euro). Herriko saihesbidea egin ondoren egungo errepidea Izurdiagako kale bihurtuko da eta haren espaloiak eta beste dira egiteko falta direnak. Sei hilabetez, lastaila bitartean Arakilgo udalak obretarako hiru peoi eta palarekin eta traktorearekin aritzeko beste langile bat kontratatu ditu. Horretara udalak 59.500 euro bideratu ditu. Kontzejuetatik eskatutako lanak egiten ari dira. Udaletxean arki-



Astelehenean, Arakilgo egunean, 2015ean jaiotakoak omendu zituen Udalak.

tektura oztopoak kentzeko igogailua jartzeko asmoa dute (85.000 euro). Arakilgo Udalak Nafarroako Gobernuaren atean diru-laguntza eske jo du. “Tokiko inbertsio-
etarako lauko urteko plan berria egin nahi dute. Jaso dituzten eska-
eren arabera premiak zehaztuko dituzte orain. Gobernuak zenbat

diru eta noiz emanen digun zehaztu arte ez dugu lan hori eginen, Satrustegiko lanarekin gastuetan sartuko garelako”.
Aixita eta bide sarea
Gaztelua bisitariendako egokitze-
ko lanak egin dituzte aurreko urte-
etan. Udazkena hasierarako seina-

leztapena eta azalpen panelak jarrita egonen direla aurreratu digu alkateak. Esku-orriren bat ere eginen da. 10.000 euroko diru saila aurreikusi dute horretarako. Axitarako bidea Etxeberritik abiatzen da. Bide hori Arakilgo bide-sarearen adar bat da. Bide sare hori 2015ean Biaizpe eta Egiarreta artean eginga zegoen. Joan den urtean Hiriberriraino zabaldu zuten (6.841 euro, Canfundazioaren 3.900 euroko diru-laguntza) eta aurten Irañetaraino zabaldu du Arakilgo Udalak (10.000 euro). Santestebanek jakinarazi digunez, asmoa ibarra inguratuko duen oinezko-
endako ibilbide borobila egitea da. Beraz, ibarraren hegoalde-
tik, barga aldetik doan bidea egokitzea faltako litzateke. Iturraskarriren bidez, hurrengo urteetarako lana izanen da hori.

Beste inbertsioak	Euroak
Kontzejuendako	35.000
Kultura	20.000
Galdara berria	10.000
Ibilgailu berria	8.000
Katastroa mantentzeko	6.500

» Etxarri Aranatz

Indarkeria matxistari erantzuteko protokoloa onartu du Udalak

Garilaren 22ko osoko bilkuran onartu zen, aho batez
Garilaren 22ko osoko bilkuran Etxarriko Udalak eraso matxisten kontrako protokoloa onartu zuen, aho batez. Aipatu protokoloa EH Bilduk eskualde mailan landutakoa da eta EH Bilduk aurkeztu zuen. Indarkeria matxista gertatzen den kasu guztietan Udalak eman beharreko erantzuna zehazten du protokoloak.
Protokoloak jasotzen du indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera aktiboa izan behar duela, “salaketa irmoa eta erabatekoa” egin behar duela “eguneroko eraso, zein eraso larri edo erailketa matxisten aurrean argi izan dezagun zer egin, gure erantzuna bateratua eta sendoa izan dadin”. Onartutako protokolo honen helburua da indarkeria matxistaren adierazpen larrienei erantzuteko urratsak eta egitekoak finkatzea. “Indarkeria matxista hamaika eratan ager daitekeen arren, eta hauek jomugan izango baditugu ere, kanpora begira erantzuteko orduan erasorik larrienetan jarriko dugu arreta oraingo, hots, erailketa eta eraso larri gisa ezaugarritu ditugunetan: bortxaketa, eraso fisiko larria...”.

Indarkeria matxistari erantzuteko protokoloa
Berdintasunerako zinegotzia edo alkatea izango da gai honetaz ardu-


ratuko den pertsona erreferentea Etxarri Aranazko Udalean. Eraso matxista larriak gertatzen badira, adierazpen publikorik egin aurretik informazioa jaso behar du Udalak, emakumeari babesa adierazi eta laguntza eskaini, eta eman beharreko erantzuna prestatzeko. Jaki-
na, kontu handiz prestatu behar da salaketa, emakume erasotua-
ren identitatea eta intimitatea babesteko. Fokua erasotzailearen gan jarri behar da, eta ez alde-
rantziz.
Erasoa gertatzean, gertatutakoa Udaleko pertsona erreferenteari jakinarazi behar da zai-
o eta Emergentzia Gunea osatu behar da. Bertan zentralizatuko da informazio guztia eta bertatik bideratuko da protokoloa. Herri-
ko mugimendu feministekin harremanetan jarriko da Udala, elkarlanean aritzeko. Udalaren erabakia mugimendu feministekin kontrastatu izan behar da. Komunikabideen aurrean ez da Udalaren aldetik bat-bateko erantzunik emango jasotako informazioa egiaztatu arte. Udala gainerako erakundeekin koordinatuko da eta emakumearekin edo honen inguru hurbilarekin harremanetan jarriko da, hark eskura izan ditzakeen baliabideen berri emateko: laguntza legala, laguntza psi-



Olaztiko Udalaren balkoian emakumearen ikurra ikusgai.

kologikoa krisi egoeretarako, laguntza ekonomikoa, beharrezkoa bada, eta abar.
Ondoren, adierazpen instituzionala landuko da. Mugimendu feministarekin harremanetan jarrita, deialdi bateratua egingo da. Eta udalbatza berezia deituko da, adierazpen instituzionala onartu eta mobilizaziorako deialdia egiteko. Mobilizazio horietan parte hartuko du Udalak, eta udaletxearen fatxadaren ikurren bat jarriko da. Udalak, gainera, akusazio gisa jokatu duen aztertu behar du. Bukaeran, prozesuaren eta protokoloaren balorazioa egingen da.
Erailketa matxista gertatzen bada, aurreko ez gainera, emakumearen inguru hurbilarekin harremanetan jarriko da Udala, behar duten laguntza eskaintzeko: laguntza legala, psikologikoa

krisi egoeretarako, laguntza ekonomikoa, beharrezkoa bada, eta gorpua aberriratu behar bada, laguntza eman.



Non erabili

BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN
Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

JUGA TAILERRAK

ARBIZU
%10eko deskontua mantenu piezetan, %5eko deskontua gurpiletan.

ENERITZ ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ
%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

EKIN

ALTSASU
100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

ALTSASU
%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisisia doan.

IOSUNE MARAURI

ALTSASU
Bakarkako sesioetan %5eko deskontua.

KIKI ARGAZKI DENDA

ALTSASU
15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

TANIA ARRAINDEGIA

LAKUNTZA
50€ko gastuarerkin, etxeko produktua doan.

LAKUNTZAKO OSTATUA

LAKUNTZA
Menuarekin, kafea edo kopa doan.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

BAZKIDETZA 50€
948 564 275

>> Irurtzun

Udan, euskaraz



Parte-hartzaile eta tailergileak aurkezten dira. WWW.IRURTZUNEUSKARAZ.COM

Aizpeak, Irurtzungeuskaltzaileen topaguneak udarako euskarazko tailer eskaintzak erantzuna izandu. Hala, 6 eta 9 urte bitarteko hamar haur udako tailerlean elkartuko

dira agorriko aurreneko bi aste-etan. Bi begirale irurtzundarrekin denetarik jarduerekin gozatzeko aukera izanen dute, astegunetan, 11:00etatik 13:00etara.

Joan den urtean bezala, Aizpearen haurrendako udako eskaintzaren barruan ITB tailerra dago. Aurreneko txandan, 7 eta 9 urte bitarteko hamar haurrek eman dute izena. Esperientzia gogokoa izan zen nonbait eta aurtun errepikatzea erabaki dute. Agorrilaren 22tik 30era, 11:00etatik 13:00etara ariko dira Irurtzun Telebistarako. Bigarren txandan, 1etik 9ra, 4 eta 6 urte bitarteko zazpi haur ariko dira. Batzuen eta beste artean Irurtzun Telebistarako saio bana grabatuko dute. Haurrek, jolasen bidez, pertsonaiak sortzen, gidoia egiten, grabatzen eta aurkezle izaten ikasiko dute. Munduko kulturak gaia ardatz hartuta hainbat jatorritako irurtzundarrekin ariko dira, haien kultura ezagutarazteko, abestiak, hizkuntza...

SAKANA

II. Gazteria Planaren zirriborroa jendaurrean

Prozesu parte-hartzaileak irailean eta lastailean izanen du segida eta Eskualdeko Foroetako bat Irurtzunen egingen da. Han gazte sakandarrek zirriborroaz iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera izanen dute

2017-2019ko II. Gazteria Planaren lan-ketaren lehen fasean sortutako zirriborroa dagoeneko jendaurrean

dago. Lehen testu hau egiteko 3.182 gazteren iritzia jaso da inkestean bitartez eta zirriborroan 150 ekin-tza jaso zituen. Nafarroako Kirola-ren eta Gazteriaren Institutuko zuzendarikudeatzaile Ruben Goñik eta Gazteriako zuzendariorde Ade-la Gonzalezek jakinarazi dutenez, lau ardatzetan antolatuta dira ekin-

tza horiek: emantzipazioa (enplegua, etxebizitza, hezkuntza), banakako prozesua (osasuna, kultura eta kirola), sozializazio-prozesua (partaidetza, bizikidetza, aisia eta astialdia eta mugikortasuna) eta banakako eta taldekako identitateagaraztea (aniztasuna, gizarteratzea, berdintasuna eta lurralde-garapena).

>> Irurtzun



Irurtzun, Urritzolako errepidetik ikusita.

Hiru lurrikara ordu erdian

Dozena bat egun lehenago Egjarretan gertatu zen moduan, Irurtzun hiru lurrikaren epizentro bihurtu zen asteartean. Aurrena, indartsuena, 3,4 gradukoa eta lau ko magnitudekoa izan zen, 15:22an. Lau minutu gero-ago 2,1 graduko errepika izan zen eta azken hori pasa eta 25 minutu-ra 1,5eko errepika izan zen. Lurra-rendardararen eragina atzera nabari-tu zen, Etxalekun epizentroa zuen beste lurrikara bat izan baitzen, 1,9koa. SOS Nafarroak hainbat dei

jaso zituen. Haietako batek Irurtzun inguruko errepide batean harriak zeudela gaztigatu zuen eta bereha-la jaso zituzten.

Irurtzunge azken lurrikarak		
Data	Mag.	Non
1982-04-12	3,0	H
1982-05-15	3,3	HM
2001-06-02	2,9	HE
2001-06-02	2,4	H
2002-03-18	3,3	HE
2016-07-26	3,4	IE
2016-07-26	2,1	IE
2016-07-26	1,5	HE

I: iparra; E: ekialdea; H: hegoaldea eta M: mendebaldea.
Iturria: Instituto Geográfico Nacional

SAKANA

Lan istripua Urban

Osoportilloko pista ondoan egiten ari diren baso-aprobetxamendu batean gertatu zen lan-istripua osti-ralean. Hainbat langile zuhaitzak moztzen ari zirela, enbor bat langi-le baten gainean erori zen. Haren azpian harrapatuta gelditu zen 26 urteko gizona. Sorbalda aldean eta

besoa zituen minduta. Altsasuko larrialdietako osasun zerbitzua eta suhiltzaileak joan ziren istripu toki-ra. SOS Nafarroak helikopteroa bidali zuen, baina eguraldiagatik ez ezin izan zuen zauritua mendian jaso eta Altsasuko suhiltzaileen parkean jaso zuen, Nafarroako Ospitale Gunera eramateko.



XXIII

Areia-Agparrenko
Umore Antzerkiaren
Jaialdia

ABUZTUAREN 11^{TIK} 15^{ERA}

Laguntzen du:

Vital gozarte ekintza OSIJA SOCIAL

Nafarroa Aldea **Diario**

radio **vitoria**

Antolatzen du:

 AYUNTAMIENTO DE ASPARRENA
ASPARRENKO UDALA

 Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Udalako agenda

Guaixe

2016ko garilaren 29

FESTAK Etxarren:

>> Garilak 29, ostirala

19:00etan Txupinazoa. Festak hasten dira!
19:15ean 2015-2016an jaiotakoei festetako zapia ematea.
19:30ean Herri-jokoan V. Mundu Txapelketa.
22:00etan Herri afaria.
00:00etan Dantzaldia Elebitan taldearekin.

>> Garilak 30, larunbata

11:30ean Hamaiketakoa.
12:00etan Tramankulu, haurrendako jolasak.
17:00etan Buztin tailerra.
18:30ean Txokolate-jana.
18:45ean Musika ikuskizuna: The Txoripanas (Etxarrego gazteak).
19:00etan Hiruko saskiratzteen txapelketa.
19:00etan Dantzaldia Elebitan taldearekin.
21:30ean Bingoa.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:30ean Herri afaria.
01:00etan Kontzertua: Txep.

>> Garilak 31, igandea

11:45ean Hamaiketakoa, gaiteroek alaituta.
12:30ean Herritarren arteko herri-kirol saioa.
16:00etatik 20:00etara Jokulandia jolas parkea.
17:30ean Pilota partidak.
19:30ean Mexikarrak, Quevedo.
21:30ean Bingoa eta zozketak.
>> Agorrilak 1, astelehena
11:30ean Hamaiketakoa.
12:30ean Munduko V. Ping Pong Txapelketa.
14:30ean Herri bazkaria.
16:30ean Mus eta briska txapelketak.
16:30ean Haurrendako jolasak.
00:00etan Gaixoa ni!

SAKANA

Euskal Presoak Euskal Herrira!

>> Garilaren 29n, ostiralean

20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

ALTSASU

Altsasu-Altzo-Altsasu

>> Garilaren 30ean, larunbatean

8:00etan Altsasuko kultur guneko paretik. 125 km. Zikloturista taldea.

FESTAK Etxarri Aranatz:

Etxarri Aranazko festak piztuko dituen etxajua herrikobi taldek piztuko dute: jantzien banaketan ari diren boluntarioak eta jaki-bankuko boluntarioek. Festei hasiera emateko aitortza horrekin Etxarri Aranazko Udalak, "etxarriar guztien izean" urteotan eskuzabaltasunez



eta apaltasunez" egindako lana eskertu nahi die. Etxajua piztu baino ordu bat lehenago, 12:00etan, festetako kartel lehiaketako saria jasoko dute irabazleek: Hodei Lizarraga Goñi (HH maila), Jon Orella San Martin (LH 1-3), Alain Jaka Goñi (LH 4-6) eta Iñaki Fernandez Iturmendi (helduen maila).

>> Garillek 30, launbeta. Etxia!

Egune
10:00etan Ehiza-ibilbidea. Muxar ehiztari taldea.
12:00etan 2015ean jaiotakoei zapi-banaketa eta kartel lehiaketako irabazleei sari-banaketa.
13:00etan Festa hasierako suziria. Gero, kalejira Etxarri Aranazko buruhandi, Uharte Arakilgo erraldoi eta buruhandien konpartsa, Etxarri Aranazko gaitero eta Turrutxiki txarangarekin.
14:00etan Turrutxiki txarangaren kontzertua, plazan.
17:30ean Pilota eta pala partidak. Gure Pilota elkarteak.
17:30ean Kalejira, Turrutxiki txarangarekin.
18:30ean Etorkizuna euskal dantza taldearen ikuskizuna, plazan.
20:00etan Preso eta iheslariak etxean nahi

ditugu, manifestazioa. Etxerat.
20:00etan Salbea Andra Mari ermitan, Etxarri Aranazko abesbatzak eta parrokiko abesbatzak kantaturik.
20:30ean Auzatea, Hartzabal, Etxe-Azpi, Uherri, Larrañeta eta Karrikestu elkarteek prestatutik.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etik 4:30era Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

>> Garillek 31, iyendie. Arañaz elkartien egune

10:30ean Dianak Etxarri Aranazko gaiteroekin.
11:30ean Auzatea, Gure Etxea elkarteak prestatutik.
12:00etan Meza.
12:30ean Herri kirolak, plazan. Aizkora apustua, harri-jasotzaileak eta trontzalariak. Sakanako aizkora eskolako ikasleen erakustaldia.
13:00etan Etxarriko buruhandiak.
13:30an Musika ikuskizuna: Puro Relajo (mariatxiak).
18:00etan Artisau azoka.
19:00etan Kale antzerkia: Burutik jota, Trokolo taldea.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Oharkabe taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.

00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

>> Agorrillek 1, astelehena.

Kuadrilaan egune
10:30ean Dianak Turrutxiki txarangarekin.
11:30ean Auzatea, Etxe-Azpi elkarteak prestatutik.
12:00etan Haurrendako apar-festa. (Bainujantzia eta txankletak eraman).
13:00etan Etxarriko buruhandiak eta japoniar bonbak.
13:00etan Bertso-saioa, plazan: Sebastian Lizaso, Aitor Mendiluze, Alaia Martin eta Eneko Lazkoz.
18:00etan Florencio Galdino, Zirko Loretsua taldearen ikuskizuna.
19:00etan Kalejira, Turrutxiki eta Kalean txarangekin.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

>> Agorrillek 2, astiertie.

Haurren egune
11:30ean Auzatea, Udaberri elkarteak prestatutik.
11:30etik 13:00etara Jolas-parkea haurrendako.
13:00etan Etxarriko buruhandiak.
13:00etan Iparfolk musika-saioa.

17:00etan Futbol-plaza txapelketa, kale nagusian.

17:00etatik 19:00etara Jolas-parkea haurrendako.

19:00etan XXIII. Play Back txapelketa, plazan.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

22:00etan Zezensuzkoa.

00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

>> Agorrillek 3, astiazkena.

Aittun-amiñan egune

11:30ean Nesken pala-partidak. Gure Pilota elkarteak.
11:30ean Auzatea Hartzabal elkarteak prestatutik.
12:00etan Meza.
12:00etan Haurrendako Joku-Trena.
13:00etan Etxarriko buruhandiak eta japoniar bonbak.
13:00etan Arantza eta Pantxo, musika-saioa.
14:30ean Aittun-amiñan bazkaria.
16:00etan Aitor soinu-jole eta musikaria.
18:00etan Yarleku taldearen Numenes familiarteko ikuskizuna.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Drindots taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Drindots taldearekin.

>> Agorrillek 4, ostegune.

Kintuen egune

10:30ean Dianak, Turrutxiki txarangarekin. Kintoei etxeko dirua eskatuko dute.
11:30ean Auzatea, urteko kintoei prestatutik.
12:30ean Bordetxe abere zirkoa.
13:00etan Etxarriko buruhandiak.
13:30ean Deakin Hicks bikotearen kontzertua.
17:00etan Kalejira Turrutxiki txarangarekin.
17:00etan XXIX. iruñerriko Itzulia, jubenil mailako bizikleta lasterketa.
19:00etan Kintoei antolatuturiko ginkana.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:00etan Musika: disko-jartzailea.
23:30ean Hesian taldearen kontzertua. Ondoren, disko-jartzailea.

HERRI MUGIMENDUBAN EGITARAUE

>> Garillek 30, launbeta.

Euskal preso ta errepresaliatu politikuen egune
10:00etatik 12:00etara Areto futboleko txapelketan finala. EGA.
13:00etan Denok txupinazora gure ikurrekin.
14:30ean Bazkaie eta omenaldiye plazan.
20:00etan Manifestazioa, plazatik abiatuta: Preso eta iheslariak etxean nahi ditugu!

>> Garillek 31, iyendie

20:30ean Saiheski- eta txistorra-jatea gaztetxien.
23:00etan Kontzertubek: Northern Pride eta El Sonido de la Metralla.

>> Agorrilak 1, astelehena.

Kuadrilen egune

14:30ean Bazkaye Karrikestun, karriken. Sagardotei menube.
19:00etan Kuadrilen igoera, gaztetxetik.

>> Agorrilak 2, asteartie

21:30ean Bertso afaye gaztetxeko terrazan: Julio Soto eta Iker Zubeldia.

>> Agorrilak 3, astizkena.

Gazte egune

14:30ean Gazte bazkaye gaztetxien.
23:00etan Kontzertubek gaztetxien: Lauropa eta Nekez.
Ondoren Dj Bull eragileen txoznan.

>> Agorrilak 5, ostiela. Inutilan egune

10:00etan Burrunbada.
14:30ean Bazkaye.
17:00etan Inutilen desfilie.
19:30ean Pregonan irakurketa.
20:00etan Kontzentraziyue, plazan: etxean nahi ditugu!
23:00etan kontzertube plazan: Los Zopilotes Txirriaos.



Etxarri Aranazko txupinazoa Elikagai Bankuko eta Jantzien Banaketa taldeko boluntarioek botako dute.

Abangoa Oskola

ALTSASU

Altsasu-Lizarrustiko parketxea

>> Garilaren 31n, igande

9:00etan Altsasuko Dantzalekutik abiatuta. 2016 bidea, 19. etapa. Informazio gehiago 6. orrian.

ETXARRI ARANATZ

XII. 3x4 Futbol-Plaza Txapelketa

>> Agorrilak 2, astearte

17:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusian, Osasuna fundazioak berriro ere Futbol-Plaza ekimena antolatu du. Aurten XII. edizioa izango da eta 3x4 formatuan jokatu da. 8-12 urte arteko neska-mutikoek har dezaketeparte. Txapelketa Nafarroako 12 herritan jokatu da eta Sakanan soilik Etxarri Aranatzen jokatu da, festen barruan, asteartean.

Lau kidez osatutako taldeak lehiatuko dira futbol txapelketa honetan. Izena ematea egunean bertan egingo da, plazan. Irabazleek agorrilaren 27an eta 28an Iruñeko Gaztelu Plazan aurrera jokatu den final handian hartuko dute parte. Sari potoloak iragarri dituzte: txapeldunendako trofeoa, tableta eta Fundazioko oparia, txapeldunordeendako trofeoa, tableta eta baloia eta hirugarren sailkatuendako trofeoa, mp4a eta Osasunista packa.

IRURTZUN

Udako zinema: Everest

>> Agorrilaren 3an, asteazkenean

22:00etan Irurtzongo Foru plazan.

IRURTZUN

Ur Festa Goxoa

>> Agorrilaren 4an, ostegunean

20:30etik aurrera igerilekuan. Gozamenek programak gazteei jarduera ludikoen bidez sexualitatearen aspektu positiboak azaldu nahi dizkie. Haren barruan Sakanako Gozamenek programak Ur Festa Goxoak antolatu ditu. Irurtzunen gazteek, 20:30etik 21:30era, ogitartekoa eta freskagarria 2,5 eurotan afaltzeko aukera izanen dute. Afariaren ondoren, 22:30era arte, ur jokoez eta txokolate iturriaz gozatzeko aukera izanen dute gazteek. Ondoren, gazteak igerilekuan bainua hartzeko aukera izanen dute, gauerdia arte.



ALTSASU

Gaueko pulunpa

>> Agorrilaren 4an, ostegunean

21:00etatik 23:00etara. 12 urtetik gorako gazteek Dantzalekuko igerilekua haiendako izanen dute ostegun gauero. Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak Gaueko pulunpa eskaintza prestatu du. Dantzalekura joaten diren gazteek afarirako ogitartekoa eskuratuko dute. Igerilekuan gaueko bainuarekin batera, bestelako jarduerekin gozatzeko aukera izanen dute. Aurreneko pulunpan aquagyma izanen da. Ondoren etorriko dira jokoak, aquadance eta ginkana.

SAKANA

Euskal Presoak

Euskal Herrira!

>> Agorrilaren 5an, ostiralean

20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

ALTSASU

Altsasu-Otxandio-Altsasu

>> Agorrilaren 6an, larunbatean

8:00etan Altsasuko kultur gune paretik. 120 km. Zikloturista taldea.

UHARTE ARAKIL

Arkeologia indusketara bisita gidatua

>> Agorrilaren 6an,

larunbatean

11:00etan Aralarko santutegia ondoan. Aurretik izena eman: info@aditu.info

ALTSASU

Altsasu Xtreme

>> Agorrilaren 6an, larunbatean

10:00etatik aurrera Altsasun.

FESTAK Zuhatzu:

>> Agorrilak 5, ostirala

20:00etan Euskara 365 egun bideo grabazioa.

Ondoren autogestionatutako afaria.

>> Agorrilak 6, larunbata

12:00etan Etxajua eta buruhandiak.

12:30ean Frontenis txapelketa.

13:00etan Saltsadun bermuta.

14:30ean Herri bazkaria.

17:00etan Mus eta briska txapelketak.

17:30ean Haurrendako jolasak.

19:00etan Txokolate-jana.

20:00etan Dantzaldia.

22:30ean Harri afaria.

00:00etan Dantzaldia.

Oharra: bi egunetan puzgarriak izanen dira.

IRANETA

Aralarko santutegira!

>> Agorrilaren 7an, igandean

12:30ean San Gregorio eta San Migel Berri ermitetan eta Basabeko bordan erromerian elkartu dira aurreko hiru igandeetan irintarrak. Erromeria aldiari akabera emateko Aralarko santutegira igoko dira igandean. Eguerdian mezara joanen dira eta ondoren herri bazkaria izanen da.



PORTUKO OKINDEGIA

ogia ren artisauak

Altsasu
948 563 822
Lantegia
948 467 153
Etxarri Aranatz
948 460 988



DANTZALEKU TABERNA ALTSASUN

BOKATAK • EGUNERO MENUA
ASTE BURUAN MENU BEREZIA
ESKAERAK 667 353 503 • 948 117 624
IREKITA • ASTEZ 11:00ETAN ASTE BURUAN 10:00ETAN

Udako agenda

UHARTE ARAKIL

Alturako erromeria

>> Agorrilak 7, igandea

Nafarroan altuera handiengan dagoen ermitan San Donato eta San Kaetano sailduak daude. Bien eguna agorrilaren 7an da eta aurten haien egunean egingen da Berianen erromeria. Uhartearrek herrian dituzten sailduen erlikiak ermitara igo eta haiek presente daudela, 11:00etan meza izanen da. Elizkizunaren ondoren Uharthe Arakilgo Udalak gazta, txorizoa, urdaia, ardoa eta uraz osatutako otamena eskainiko du. Hura borobiltzeko Ollor ibarretik joandakoek kafea eta pastak gehituko dituzte. Lagun arteko hizketaldien ondoren, Ollor, Unanu, Uharthe Arakil eta Irañetako bideak hartuko dituzte mendizaleek.



UNANU

Hirugarren aldiz, San Donati eguna

>> Agorrilaren 7an, igandean

Hirugarren urtez jarraian San Donati eguna hartuko du Unanuk, kontzejuak antolatuta. Unanuarrek hala hots egiten baitiote Berian gaineko ermitari: San Donati. Uhartearrek mendi gainean antolatutako erromeriara makina bat jende joaten da Unanatik abiatuta. Eta kontzejuaren herriari bizitasuna emateko festa eguna antolatzea erabaki zuten, horregatik, elkartearen egun osoan zabalik izanen da.

Urtero moduan, menditik jaisten diren guztiek Denok Bat elkartearen zabalik opaturiko dute Unanun. Frontoian herri bazkaria izanen da, honakomenuarekin: sarrerakoak (entsalada mistoa, errusiar entsalada, zainzuriak mahonesarekin eta urdaiazpikoa) paella mistoa eta postrea (25 euro). Haurrendako menua izanen da ere. Bazkarian izena eman nahi duenak 656 757 494 (Jon), 650 403 106 (Jabi) edo 616 664 038 (Joseba) telefonora hots egin behar-

ko du astelehena baino lehen. Bazkariaren ondoren, elkartean, disko-jartzaile batek festarako musika jarriko du.

ARBIZU

Yoga naturan

>> Agorrilaren 8tik 14ra, astelehenetik igandera

Arbizuko kanpineko Amari aretoan.

IRURTZUN

Udako zinema: La familia Belier

>> Agorrilaren 10ean, asteazkenean

22:00etan Irurtzongo Foru plazan.

ALTSASU

Gaueko pulunpa

>> Agorrilaren 11n, ostegunean

21:00etatik 23:00etara Dantzaleku igerilekuan 12 urtetik gorako gazteek hiru eurorengatik afaltze-

az aparte, bainua eta jokoez gozatzeko aukera izanen dute.

ERROTZ

Udako zinema

>> Agorrilaren 11n, asteazkenean

22:00etan Errozko frontoian.

ETXARRI ARANATZ

Osasuna - Eibar

>> Agorrilaren 12an, ostiralean

19:00etan Etxarri Aranatzko futbol zelaian.

SAKANA

Euskal Presoak

Euskal Herrira!

>> Agorrilaren 12an, ostiralean

20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranatzko plazetan, elkarretaratzeak.

ALTSASU

Altsasu-

Abaltzisketa-Altsasu

>> Agorrilaren 13an, larunbatean

8:00etan Altsasuko kultur gune paretik. 120 km. Zikloturista taldea.

UHARTE ARAKIL

Arkeologia

indusketara bisita gidatua

>> Agorrilaren 13an, larunbatean

11:00etan Aralarko santutegia ondoan. Aurretik izena eman: info@aditu.info



FESTAK Dorrao:

>> Agorrilak 13, larunbata

12:00etan Festa hasierako etxajua.

18:00etan Futbol partidak.

18:00etan Ur eta puxika festa.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Haitzama taldearekin.

21:00etan Auzatea.

1:00etatik aurrera Dantzaldia Haitzama taldearekin.

>> Agorrilak 14, igandea

14:30ean Herri bazkaria.

17:30ean Urteroko erronda.

21:00etan Auzatea.

1:00etan Dantzaldia Julen dj-rekin.

>> Agorrilak 15, astelehena.

Ama Birjina eta jubilatuen eguna

13:30ean Meza.

14:00etan Auzatea, trikitilariak alaituta.

20:00etan Txutxin Ibañez mariatxia.

21:00etan Auzatea.

1:00etan Dantzaldia Julen dj-rekin.

>> Agorrilak 16, asteartea

19:00etan Aizkora apustua.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Haitzama taldearekin.

21:00etan Sardina- eta txistorra-jatea.

1:00etan Dantzaldia Haitzama taldearekin.

>> Agorrilak 17, asteazkena

18:00etan Haurrendako jolasak.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Haitzama taldearekin.

21:00etan Auzatea-

00:30ean Mozorro lehiaketa.

1:00etan Dantzaldia Julen dj-rekin.

5:00etan Hau pena nik!

ALTSASU

Emakumezkoen Futbol Eguna

>> Agorrilaren 14an, igandean

Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian. Sociedad Deportiva Alsasuak antolatuta, Nafarroako Futbol Federazioaren laguntzarekin.

Egitaraua

Goizean 3x3 Emakumezkoen Futbol Torneoa

Arratsaldean Mulier - Athletic futbol partida.

"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik"



LAKUNTZAKO UDALA

www.lakuntza.eus

info@lakuntza.eus

tel. 948 576 015



Lakuntzaileok
HERRIARRAREN PARTE-HARTZE PLANA

Abuzaria Oskorribu

FESTAK Urdiain:

Andramauztuko festak

>> Agorrilak 14, domeka
12:00etan Etxajua trikitilariak alaituta.
16:00etan Brixka txapelketa Kaluxan eta mus txapelketa Mareon.
17:00etan Apar-festa, plazan (arropa egokia eraman).
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Drindots taldearekin.
00:30etik 3:30era Dantzaldia Drindots taldearekin.

>> Agorrilak 15, astelehena
12:00etan Meza Aitziberko ermitan, ondoren auzatea trikitilariak alaituta.
14:30ean Bazkaria Urriztin.
20:00etatik 22:00etara Disko festa.
00:00etatik 3:00etara Disko festa.

Oharra: bazkal aurretik eta arratsaldean Urdiaingo Gazte Asanbladak barra zabalduko du Urriztin.

ITURMENDI

Aritzaga ermitan meza

>> Agorrilak 15, astelehena

Ama Birjinaren egunarekin Aritzaga ermita erromanikoa zabalduko egingen du ermitauak. Izan ere, 12:00etan meza izanen da. Elizkizunaren ondoren, herrira bueltan, iturmendiarrek Aritzaga elkartean auzatea izanen dute. Ibarreko erromanikoa ezagutzeko aukera da.

ETXARRI ARANATZ

Amerjinar egunakin bendubek

>> Agorrilak 15, astelehena

Atzeraere, Andra Mari ermitaren bueltan merendatzera elkartuko dira etxarriarrak. 19:00etan udal txetxermitarantz abiatuko dira udal agintariak. Haiek iristerako ermitaren bueltan lagun koadrilen mahai eta aulkiak jarri izanen dira. Etxajua lehertzearekin batera merendatzen hasikodira. Mahaitik jaso eta kintoak dantzakia dantzatuko dute. Kalejira plazara jaitziko dira etxarriarrak eta han Orotso taldearekin dantzaldia izanen da,



19:30etik 22:00etara eta 00:00etatik 3:00etara. Eguraldiak lagunduz gero batzuketan ermitako egonaldia hizketaldiekin eta kantuz luzatuko dute.

IRURTZUN

Udako zinema: George eta dragoia

>> Agorrilaren 17an, asteazkenean

22:00etan Irurtzongo Foru plazan.

ALTSASU

Gauko pulunpa

>> Agorrilaren 18an, ostegunean

21:00etatik 23:00etara. Dantzaleku igerilekuangazteek bainua hartzeko aukera eta aquadancerekin gozatzeko aukera izanen dute. Ogitarte-ko eta freskagarria ere eskura dituzte.

SATRUSTEGI

Kometa festa

>> Agorrilaren 19an, ostiralean

17:30etik aurrera, hegan egiten duten gailu horien, kometen festahar-

tuko du Satrustegik. Arakilgo Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, Satrustegin kometak egiteko tailerra izanen da. Behin egin eta gero haiek hegan ikusteko aukera izanen da. Zeruian gailuek egiten dituzten egonaldiak, itzul-inguruak eta bestelakoekin gozatu ondoren, bildutako guztiendako otamena izanen da.

ARBIZU

Lurraren ekintzaile prestakuntza

>> Agorrilaren 19an, ostiralean

Arbizuko kanpineko Amari aretoan.

SAKANA

Euskal Presoak Euskal Herrira!

>> Agorrilaren 19an, ostiralean

20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranzoko plazetan, elkarretaratzeak.

Festa onak pasa!

Etxarri Aranazko Udala
www.etxarriaranatz.eus

UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

I ♥ Etxarri Aranatz

Etxarri Aranatz

Udako agenda

FESTAK Satrustegi:

>> Agorrilak 19, ostirala

17:30ean Kometajaialdia.

20:00etan Txupinazo, puzgarriak eta kilikiak.

20:30ean Dantzaldia Asier dj-rekin.

22:30ean Herri afaria

1:00etan Dantzaldia Asier dj-rekin.

>> Agorrilak 20, larunbata

12:00etan Erizeko Erraldoiak, kiliki eta puzgarriak.

13:00etan Marmitako txapelketa.

15:00etan Autogestionatutako herri bazkaria.

17:00etan Haur jolasak.

19:00etan Pilota partidak. Helduak: Ongay vs Ezkurdia II. Gazteak: Berekoetxea-Berastegi vs Lizarraga-Zabaleta

20:00etan Dantzaldia dj-rekin eta txikiendako moztorroak.

22:00etan Zehensuzkoa.

00:30ean Dantzaldia Asier dj-rekin eta helduendako moztorroak.

>> Agorrilak 21, igandea

12:00etan Meza.

13:00etan Otamena eta Duo Luisyanaren rantxerak.

17:00etan Kale antzerkia, Pablo del Mundillo.

19:00etan Komuneko paper jaurtiketa txapelketa.

19:30ean Dantzaldia Asier dj-rekin

22:00etan Hau pena nik.

IRURTZUN

Pirinioak

>> Agorrilaren 20an, larunbatean

Irurtzungo Iratxoko mendi taldea.

ALTSASU

Altsasu-Alli-Altsasu

>> Agorrilaren 20an, larunbatean

8:00etan Altsasuko kultur gune paretik. 120 km. Zikloturista taldea.

UHARTE ARAKIL

Arkeologia indusketara bisita gidatua

>> Agorrilaren 20an, larunbatean

11:00etan Aralarko santutegia ondoan. Aurretik izena eman: info@aditu.info

LIZARRAGA

Lizarraga-Harleze-Lizarraga

>> Agorrilak 20, larunbata

Titularrak lasterketa bateko ibilbidearen itxura badu ere, lizarra-tarrek agorri-leko hirugarren aste-buruko larunbatean egiten duten ibilbidea da. 9:00etan helduko diote maldari. Hura berdindu ondoren, 10:30 aldera, Lizarragako Kontzejuak San Adrian ermitaren inguruan auzatea eskainiko die mendizaleei. Indarrez beteta Har-



lezerako bideari helduko diote. 11:30 aldera iritsiko dira hara eta bideko helmugan, lezean, sartu-irtena eginda herrira bueltan joan dira.

Behin Lizarragan herri bazkaria izanen da, 14:00etan. Bazkalon-doan jaso eta etxez-etxe erronda egingen dute, txaranga lagun. Eta afal garaia iritsiko zaie.

21:30ean kontzejuak marmitakoa plater nagusi duen afaria eskainiko du. Parranda disko-jartzailer baten musikarekin 1:00ak arte luzatuko da.

Lizardi
Estetika zentroa

Amaia Benjumea
Ongi pasa festetan!
649 444 018
Nagusia 12, 1.B
Etxarri Arantz

aurretik / ondoren

eveye
eyelash formula

MARINELETXE
HARATEGIA

Ongi pasa festetan!

948 46 19 80
636 70 74 88

Larrañeta Kalea 6
Etxarri Arantz

LEKU ONA
taberna

Afaltzeko bokata goxo-goxuek!

Ongi pasa festetan!

JAIK BAI,
BORROKA ERE BAI!

Gosariak eta afariak

IRATXO
TABERNA

Festa onak pasatzen!

ETXARRI ARANTZ

Elaboración artesana

FLORES S.L.

Nafarroako betiko txistorra

Ongi pasa festetan!

TRASKIL
MODA DENDA

UDAZKEN-NEGU
DENBORALDIA

ETXARRI ARANTZ

WIKINGO Oskorru

ARBIZU

Sandindein, festa

>> Agorrilak 20an, larunbata

Eguerdia aurretik, 11:30ean, arbizuarrrak Sandindeiko bordarako bidea hartuko dute. Txistularien doinuak lagunduta egingen dute bidea, kalejiran. Aralar magalean dagoen bordara iritsita, 13:00etan, han elkartutako guztiendako aatea izanen da. Ondoren herri kirol saioa izanen da, eta hurrek eurendako jolasekin gozatzeko aukera izanen dute. Mahaira eseri eta majo bazkalduko dute. Arbizurako buelta festagirotan egingen dute, 19:00etan. Trikitilarien doinura dantzari Arbizuraino iritsiko dira. Han ordu txikiak arteko dantzaldia izanen da, diskojartzaile batek animatuta. Azken bi urteak agorriko azken larunbatean ospatu ondoren, hasierako data, agorriaren alderia pasa da aurtengo Sandindeiko festa. Sandindeiko erromeria 2005etik ospatzen dute. San Juan festetatik kanpo arbizuarrrak festa egun batean biltzeko premia ikusi zuten eta erantzun ederra izan zenez, 12. edizioa du aurtengoa festak.

tzun ederra izan zenez, 12. edizioa du aurtengoa festak.

IHABAR

Ihabar, historiaren zilborra

>> Agorrilaren 20an, larunbatean, 22:00etan eta agorrilaren 21ean, igandean, 21:30ean

Festen aurreko asteburua girotuko du beste behin ere Ihabarko antzerki taldeak. Munduaren historiaren erdigunea Arakilgo herria bera dela argituko dute aktoreek. Informazio gehiago 23. orrian.

LAKUNTZA

Lakuntza + pertza = erromeria

>> Agorrilak 21, igandean

6:00etatik aurrera.

Aurten berandu, agorriko hirugarren asteburuan heldu da Lakuntzako festa ospakizuna. Atzeratze-



aren arazoia da ama birjinaren egunaren ondoko igandean ospatzen dela erromeria. Eta, horretarako, goizter ibiliko dira Lakuntzarrak: 6:00etan abiatuko dira Lakuntzako Pertza elkartetik Aralarko santutegirantz. Astoa eramango dute haiekin, eta hark gosarirako beharrezkoak izanen diren tripotak, ogia eta ardoa eramanez dituzte. Santutegirako bide erdia eginga dutela, inoiz pertza erori omen zen tokian, Lakuntzarrak indarrak hartzeko gosaria egiten dute. Hala, sasoi iritsiko dira santutegira.

Han meza izanen da, 11:00etan. Elizkunaren ondoren elkarrekin auzateakainikodu. Jakina, tripotak, ardoa eta ogia. Aterpeko plazan Bil-toki gazte elkarteko kideek Lakuntzako Pertza dantza dantzatuko dute. Santutegi inguruko aldia egin ondoren Lakuntzarrak guardetxea zegoen tokira, Albiko zelaira jaitsiko dira eta han

bazkalduko dute. Han bertan, 16:30etik 18:30era, dantzaldia izanen da, Lakuntzan 20:00etatik aurrera segituko duena, festa ordu txikitaraino luzatu araziz.

Istoria

Kontakizunak dio Lakuntzarrak Asulbizio festa ospatzera Aralarko santutegira joaten zirela, ohi denez asto gainez gosaria eramanez. Antza, urteren batean, tripotaz betetako pertza maldan beheara erori zen. Lakuntzarrak jatekorik gabe gelditu omen ziren. Baina, gainera, tripotetako batek Uharteko erroteria jo eta betokor utzi zuen. Lakuntzarrak entzun behar izan zituztenak! Ziriketzeko asmoz galdetzen zieten: Lakuntzako pertzak ze fine in zuben? Lakuntzarren ohiko erantzuna bihurtu omen zen: Zuben aitek eta amak izan zuben.

Guztiari buelta emateko Lakuntzako Pertza izeneko elkartea sortu

zuten lehenik Lakuntzarrek eta ospakizunari heldu zioten, asto, pertza, tripota eta beharrezko guztiarekin.

UHARTE ARAKIL

Ur Festa Goxoa

>> Agorrilak 24, asteazkena

20:30etik aurrera igerilekuan

Gazteei zuzendutako eskaintza ludiakoaren bidez, Gozamenez programak sexualitatearen aspektu positiboak azaldu nahi dizkie. Hala, Uharteko Arakilgo igerilekura hurbiltzen diren gazteek 20:30etik 21:30era bitartean afaltzeko aukera izanen dute; ogitartekoa eta freskagarria 2,5 euroan. Ondoren ipuin kontalaria izanen da. Eta festa despeditzeko, 22:30etik gaurdira, bainua hartzeko aukera izanen dute.

ARTZAI EGUNA-2016
2016-08-28

49. URTEURRENA

UHARTE ARAKIL

XLIX URTEURRENA

EGUNEKO EGITARAUA

IDIAZABAL

Nafarroako Erresuma
Nafarroa
www.turismo.navarra.es

FUNDACIÓN CAJANAVARRA

NAFARROAKO TURISMOAREN INTERESGARRIKO FESTA IZENDATUA

Ongi pasa festetan!

HORTZ KLINIKA
Etxarri

Eguerdietan zabalik

948 460 315
Kale Nagusia 27
Etxarri Aranatz

DERRY TABERNA
ETXARRI ARANATZ

SAOR DOIRE

goizeko 7:00etatik
sukaldea zabalik
festetako menua
ogitartekoak ezin hobeak
kriston giroa
Ongi pasa jaietan!

948 461 703

Ongi pasa festetan!

LAGUNARTEA
TABERNA

Lakuntza

KARASATORRE
HESTEBETE ARTISAUAK

Artisan erara egindako
hestebeteak
Autozerbitzua
Etxeko tripekiak

Ongi pasa festetan!

Kale Nagusia, 22 · Etxarri Aranatz · 948 460 036

NEREA
ILEA PAINDEGIA

asko gozatu
festetan!

NEREA BAKAIKOA
Ermiñeta kalea 4 · 948 567 331
LAKUNTZA

Udako agenda

ALTSASU

Gaueko pulunpa

>> **Agorrilaren 25ean, ostegunean**

21:00etatik 23:00etara

Bainua eta ginkanan parte hartze-ko eskaintza dago 12 urtetik gorako gazteendako Dantzaleku igerilekuan. Afaltzeko ogitartekoa eta freskagarria 3 eurotan dute.

FESTAK Irañeta:

>> **Agorrilak 25, osteguna**
20:00etan Frontenis txapelketako finala.
21:00etan Autogestionatutako herri afaria.

>> **Agorrilak 26, ostirala**
12:00etan Etxajua.
14:00etan Koadrila arteko paella txapelketa.
14:30ean Paellen dastaketa.
17:30ean Txapelketan parte hartutako koadrilen arteko ginkana.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Orots taldearekin, eta ardoa txokoan.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etik 3:30era Dantzaldia Markel disko-jartzailearekin.

>> **Agorrilak 27, larunbata**
10:30ean Hamarretakoa: baba txikiak, txerri buztana eta gehiagorekin.
12:00etan Mus eta partxis txapelketa.
17:00etan Etkez etxeko erronda txaranga-rekin.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Ilargi taldearekin, eta ardoa txokoan.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30ean Dantzaldia Markel disko-jartzailearekin.

>> **Agorrilak 28, igandea**
11:30ean Haurrendako jolasak.
15:00etan Herri bazkaria.
17:00etan Pilota partidak.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Equus

taldearekin, eta ardoa txokoan.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30ean Dantzaldia Markel disko-jartzailearekin.

>> **Agorrilak 29, astelehena**
Egun guztian puzgarriak
11:30ean Uharte Arakilgo erraldoi konpartsa.
13:00etan Patroiaren omenezko meza.
Ondoren adinduendako otamena.
18:30ean Txokolate-jana.
20:30etik 23:00etara Dantzaldia Aitaren Bilobak taldearekin, eta ardoa txokoan.

SAKANA

Euskal Presoak Euskal Herrira!

>> **Agorrilaren 26an**

20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Arantz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

ALTSASU

Altsasu-Azanza-Altsasu

>> **Agorrilaren 27an, larunbatean**

8:00etan Altsasuko kultur gune paretik. 110km. Zikloturista taldea.

UHARTE ARAKIL

Arkeologia indusketara bisita gidatua

>> **Agorrilaren 27an, larunbatean**
11:00etan Aralarko santutegia ondoan. Aurretik izena eman: info@aditu.info



FESTAK Errotz:

>> **Agorrilak 27, larunbata**
12:00etan Txupinazoa eta otamena.
14:00etan Herri bazkaria.
17:30ean Mus, briska eta jolasak.
19:00etan Garagardo dastatzea.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia.
22:00etan Zezensuzkoa.
Ondoren herri afaria
00:00etatik 4:00etara dantzaldia.

>> **Agorrilak 28, igandea**
11:00etan Meza.
12:00etan Otamena.
17:00etik 19:00etara Puzgarriak.
19:30ean Mariatxiak.

>> **Agorrilak 29, astelehena**
11:00etan Etkez etxeko erronda.
15:00etan Herri bazkaria.
Hau pena nik!

FESTAK Lakuntza:

>> **Agorrilak 27, larunbata**
9:45ean Guardetxera herri-igoera, Zabalarteren eskutik.
11:00etan Parkea Martxan areto futboleko txapelketako finalak.
11:30ean Diana Lakuntzako txistulariekin.
12:00etan Ezkila errepika.
12:30ean Txupinazoa.
12:30ean Erraldoi eta buruhandien konpartsaren irteera, Haizadi gaiteroekin.
13:00etan Zapi banaketa 2015ean jaiotako haurrei.
13:00etan Auzatea, Lakuntzako Udalaren eskutik.
13:25ean Areto futboleko eta Guardetxeko igoerako sari banaketa herriko plazan.
13:45ean Auzatea Haizea elkartearen.
15:00etan Elkartasunaren aldeko bazkaria, plazan.
Arratsaldean zehar dantza-poteoa Haizadi gaiteroen eskutik.
16:30ean Haurrendako Apar festa, Larraina plazan.
18:30ean Elai Alai dantza taldearen emanaldia, plazan.
19:30ean Larrain dantza.
19:30ean Buruhandien irteera.
20:00etan Auzatea, Correfoc-eko lagun

eskutik.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Laket taldearekin.
21:30ean Zezensuzkoa.
00:00etatik 00:45era Correfoc, Katalunia-ko deabru federazioak eskainia.
1:00etik 3:30era Dantzaldia LAKET taldearekin.

>> **Agorrilak 28, igandea**
12:30ean Meza, parrokiak antolatua.
13:00etan Auzatea, Lakuntzako Pertza Elkartearen eskutik.
13:00etan La Jodedera taldearen musika kontzertua.
17:30ean Bizikleta zinten jolasa, Aldababi-de plazan (kaskoa derrigorrezkoa izango da).
18:00etan Euskal Herriko 3. mailako aizkolari final aurreko txapelketa.
19:30ean Buruhandien irteera.
20:00etan Kontzentrazioa.
20:15ean Auzatea, ehiztarien eskutik.
20:15etik 22:00etara Dantzaldia Ezten Giro taldearekin.
21:30ean Zezensuzkoa.
00:30etik 2:30era Dantzaldia Ezten Giro taldearekin.

>> **Agorrilak 29, astelehena.**
Haurren eguna
11:30ean Diana, Lakuntzako txistulariekin.
11:30etik 14:00etara Puzgarriak plazan.
12:30ean Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren irteera, Haizadi gaiteroekin.
13:00etan Auzatea, Gure Nahiaren eskutik.
16:30etik 19:00etara Puzgarriak, plazan.
19:30ean Buruhandien irteera.
20:00etan Auzatea, Lakuntzako Udalaren eskutik.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Xaiborrekin.
21:30ean Zezensuzkoa.
00:30etik 2:30era Dantzaldia Xaiborrekin.

>> **Agorrilak 30, asteartea.**
Aittun-amiñen eguna
11:30ean Kalderete lehiaketa.
12:00etan Meza, parrokiak antolatua.
12:30ean Bizikleta zinten jolasa Aldababi-de plazan (kaskoa derrigorrezkoa izango da).
13:00etan Auzatea, gurasoen eskutik.
13:00etan Puro Relajo mariatxiak, plazan.
14:00etan Kaldereteko plater bilketa eta sari banaketa.
14:30ean Aittun-amiñen bazkaria, plazan.
16:00etan Sokamuturra eta animaliak parkean.
17:00etan Kadeteen mailako txirrindulari proba.
17:00etan Aittun-amiñendako magia ikuskizuna, bazkariaren ondoren.
18:00etan Suztraiak dantza ikuskizuna, kultur etxean.
20:00etan Auzatea, Lakuntzako Udalaren eskutik.
19:30ean Buruhandien irteera.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Egan

taldearekin.
21:30ean Zezensuzkoa.
00:30etik 2:30era Dantzaldia Egan taldearekin.

>> **Agorrilak 31, asteazkena.**
Euskararen eguna
12:00etan Lakuntza kantuz, Kuxkuxtu musikariekin batera, herrian barna.
13:00etan Auzatea, Haizearen eskutik.
14:30ean Euskararen aldeko kantu bazkaria, Kuxkuxturekin.
15:00etatik 18:00etara Bazkariarenondoren haurrendako jolasak. Puzgarriak eta tailerrak.
18:30ean Euskarakea plazan (Kantuak euskaraz izanen dira).
19:30ean Buruhandien irteera.
20:00etan Auzatea, Lakuntzako Udalaren eskutik.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Elebitan-ekin.
21:30ean Zezensuzkoa.
21:45ean Kriseiluen gaua, parkean.
Lakuntzako Gure Esku Dago.
00:30etik 2:30era Dantzaldia Elebitan-ekin.

>> **Irailak 1, osteguna. Gazte eguna**
13:00etan Auzatea, Biltokiren eskutik.
13:00etan Musika plazan.
15:00etan Bazkaria eta Piropro lehiaketa
17:00etatik 20:00etara Elektrotxaranga herriko kaleetan zehar.
19:30ean Buruhandien irteera.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia plazan.
21:30ean Zezensuzkoa.
00:35ean Dantzaldia plazan.

Oharrak
Barraken prezioa : Bidaia bat 2 euro, hiru bidaia 5 eta zazpi bidaia 10,00.
Taberna guztietan 00:00etatik aurrera berrerrabiltzeko edalontziak soilik erabiliko dira.



kaxeta

liburudenda / paperdenda



Enkargatu zure testu liburuak

948 460 477

Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

Abango Oskor

ALTSASU

Ospa Eguna

>> Agorrilaren 27an, larunbatean

Lurrez, itsasoz eta airez... alde hemendik. Lelo hori du bosgarren Ospa egunak. “Okupazio indarrak” Altsasun ez dituztela nahi aldarrikatuko dute beste behin Ospa mugimenduko kideek. Ospa egunerako deialdia egitearekin batera, mugimenduko kideek jakinarazi dute apirila eta garagarri bitartean Altsasun 128 kontrol zenbatu dituztela, Guardia Civilaren 99 eta Foruzaingoaren 29. Ospako kideek gaineratu dutenez, denbora tarte horretan bi sarekada izan dira. Eta gogora ekarri dute garagarriaren 15ean Guardia Civilak haurrei zuzenduta antolatutako jardunaldia ere.

ALTSASU

Zirku arteekin gozatzeko

>> Agorrilaren 27an, larunbatean

18:00etan Altsasuko kultur gune pareko plazan. 15. edizioa du aurten *Ezin zailagoa*, Nafarroako zirku jaialdiak. San Adrianeekin, Uhartel Iruñarekin, Viñarekin eta Tuterarekin batera antolatzen du Altsasuk *Ezin zailagoa*. Zirku arte ikuskizunei programazioetan lekua egin eta, uda giroa baliatuz, kale ekitaldiak sustatu asmoz sortu zen *Ezin zailagoa*. Eta horretan dirau. Aurten hiru ikuskizunekin gozatzeko aukera eskainiko digute.

Hiru ikuskizun

Eszenan lehenak, 18:00etan, Granadako Tresperté konpainiako hirukoia eta hainbat sari jaso dituen *Aquí sobra uno* ikuskizuna izanen da. Hiru akrobata, irrati zaharra eta umore dosi handiak osagai ditu zirku-antzerki ikuskizun mutuak. Ikuskizuna hastear da eta dena perfektu atera beharrak sortzen duen tentsioak akrobaten arteko erlazioak azalarazten ditu: jeloskortasuna, pasioa, maitasuna... Guztitik ondorio bakarra aterako dute, haietako bat soberan dago!

Segituan, 19:00etan, Kataluniatik heldu den Manolo Alcantararen zirku pertsonal eta singularraren txanda izanen da. *Rudo* ikuskizuna zakarkeriarekin, ahalegin fisikoarekin eta erronka pertsonalekin bizi izan diren pertsonen ari da. Alcantara autodidaktak horiek absurdoaren muturreraino eramanen ditu. Hala, gizon zakar mutu baten papera jokatu du. Hark egurrezko kutxa astunekin dorreak eta figurak sortzen ditu. Bere desira eta ilusioaren fruitu, eraikuntza hauskorren gai-



nean zutituko da. Laia Riusek (biolina) eta Maria Bouk (biolontxelo) zuzeneko musika joko dute, pertsonaiaren ahalegin titanikoari kontrapuntu lirikoa jartzeko. Ikuskizun intimoa, prekarioa, arriskatua eta xamurra.

Ezin zailagoa despeditzeko, 20:10ean, Murtziako UpArte konpainiak goi mailako akrobazia teknikako ikuskizun bizia eskainiko du: *Todo en caja*. Musika alaiaz lagunduta akrobaziaren alde pertsonal eta dibertigarriena erakutsiko dute sei artistek, umore ukituz. Jauzi, hegaldi eta giza dorreak eginez ikuslearen emozioak intentsuak sortaraziko dizkiote. Arnasari heltzeko prest? Seikotea bere gogo-bizia kutsatzeko asmoz etorriko da Altsasura.

OLATZAGUTIA

Koxka taberna-Marga Gurpea Xota

>> Agorrilaren 27an, larunbatean

19:00etan Erburua kiroldegian.

UHARTE ARAKIL

Artzaintzari eskainitako eguna

>> Agorrilaren 28an,

10:00etatik aurrera, 49. Artzain eguna.

Aralar Mendi elkarteak artzainak omentzeko festa antolatu du agorriko azken iganderako. Aurten goa ospakizunaren 49. edizioa izanen da, atzera ere, Uhartel Arakil guztia artzaintzaren inguruko festa



herrikoia bihurtuko duena. Goizetik jende ugari erakarriko du Artzain Egunak. Hainbat salmenta postu, artisaubak, gazten salmenta postuak, lanabesak... Artzaintzarekin lotura duen hainbat gauza izanen dira. Guztia musikak girotua. Lagun askok hitzordua jartzen dute Uhartel egun horretan. Askok bazkal aurreko gazta erdiaren enkanteak erakartzen ditu ere.

Turismo Intereseko Festa izendapena du Artzain Egunak. Goikoak arrazoi gutxi badira, beste hainbat segidan. Aurreneko ediziotik hutsik egin ez duen artzain txakurren trebezia lehiaketa izanen da Geinbera zelaian. Hura bezain beteranoak ez diren beste lehiaketa batzuk ere jokatu dira herrian: gaztena, ardi latxena edo ardi-motzaileena. Arriskuan dauden arrazen erakusketa, ardi txapelketa edo ardi aukeratuen lehiaketak dagoeneko ezin dute lehiaketan hutsik egin.

49. ARTZAIN EGUNA. EGITARAUA

Artzainen omenaldi festa

10:00etan Epaimahaiaren hautaketa.

Aurreksua.

10:30etik 14:30era Nafarroako ardi latxa esne gordinaz egindako gazten XXXV. Txapelketa. Saritutako gazten enkantea, dastatzea eta gazten feria.

10:30etik 13:30era Nafarroako XXXIII. ardi latxaren erakusketa eta esne-ekoizpen lehiaketa.

Latxa arrazako ardi aukeratuen XIII. lehiaketa nazionala (hau da bertako ardi latxaren txapelketarik garrantzitsuenak).

11:30ean Aralar-Andiara aldaketa egiten, herrian barna artalde pasako da.

Goizean Artzain bat betidaniko erara gazta egiten ikusi ahal izango dugu Donibane plazan.

11:00etatik 13:00etara Nafarroako XXIX. ardi mozte mekanikoaren txapelketa, Espainiako txapelketarako sailkagarria.

11:00etatik 12:00etara Euskal artzain txakurren, Pirinioetako artzain txakurren eta galzorian dauden arrazen XXIV. erakusketa.

12:00etan Agur Jaunak. Artzain egunean parte hartu duten eta bertako kulturaren alde lan egin duten pertsona, entitate eta

taldeei omenaldia.

12:15ean XXII. ardi giatsuaren txapelketa eta dastatzea.

12:45ean Nafarroako ardoen XXII. dastatzea.

13:30ean Goizeko lehiaketa guztietako sariak eta txapelak banatuko dira. Ondoren, gazta erdi irabazlearen enkantea plazan.

14:30ean Uhartel Arakilgo frontoi estalian herri bazkaria: Nafarroako axuriarekin prestatutako menua (txartelak argibide mahaian salduko dira goiz guztian barna).

17:00etan Nafarroako 49. Bertako Artzain Txakurren Lehiaketa Ofiziala Geinberako barrutian (Euskal Herriko eta Oñatiko Nazioarteko txapelketetarako sailkagarria). Partaide eta antolatzaile zaharrei omenaldia.

*Goiz guztian zehar: gazten eta eskuz eginiko beste produktuen erakusketa; eskularen erakusketa: kaikuak, egurrezko uztaiak, apaingarriak, zeramika, egurra, ardazlariak, taloak, jakiak... Euskal dantza, musika taldeak eta joaldunak.

www.artzaieguna.com

Artzai eguneko informazio guztia.

IRURTZUN

Haurren botxa txapelketa

>> Agorrilaren 29etik irailaren 2ra, astelehenetik ostiralera

19:00etatik aurrera Irurtzungo Iratxo elkarte txakategian. Haurren txapelketa Iratxo elkarteak antolatu du.

ALTSASU

Festetako kartel lehiaketako lanen erakusketa

>> Irailaren 1etik 10era **9:00etatik 14:00etara**, Altsasuko Iortia kultur gunean.

SAKANA

Kalean da Sakandar Oi!, Sakanako lehen punk-oi! fanzinea

Oi!-arekin loturiko Sakana mailako gaiak jorratzen ditu, elkarrizketa, erreportaje eta bestelako artikuluen bidez. Sakanako hainbat herritan eskuratu daiteke, musutruk.

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Joan den astean ikusi zuen argia Sakandar Oi! fanzinearen lehen aleak. Argitalpena Xabi Arbizu arbizuarrak sortu du, Sakanan punk-Oi! mugimendua eta bere filosofia sustatzeko xedearekin. Bere esanetan, duela urte batzuk Oi!-akegoera oparoa bizi zuen ibarrean, baina egun behera egina omen da. Horrela, fanzinea ibar mailan musika eta kultura hori berriz ere errotzeko egitasmo lege definitu du Arbizuk: “Fanzinearen atzean Oi! mugimenduarekiko dudan miresmen eta konpromisoa dago. Azkenaldian Oi!-ak jaitiera nabarmenapairatu du Sakanan, eta horrek pena ematen dit. Sakandar Oi! fanzinea egoera hori iraultzeko saiakera da”.

Arbizuren esanetan, Oi!-a langile klasearen espresio-bide bat da –klase sozial honen rock & roll gisa kontsideratzen du–, eta balore errebelde batzuk sustatzen ditu, “egungo gizartearendako beharrezkoak direnak”. Fanzinea balore horien hedapenerako tresna izatea nahi du arbizuarrak. Lan eskerga egin behar izan omen du proiektua aurrera eramateko, baina emaitzarekin pozik dago, batik bat jendearengana iristea lortu duelako: “Halako argitalpen bat egiteak ordu asko eskatzen ditu, batetik edukiak bilatu eta landu behar direlako, eta bestetik diseinua pentsatu eta findu behar delako. Eta noski, ondoren montatu eta banatu egin behar da. Bakarrik egiteko lan askoda. Baina uste dut ahaleginak merezi izan duela, fanzineak harrera ona izan baitu”.

Egilearen arabera, argitalpena Sakanatik eta Sakanarako egi-na da. Oi!-arekin loturiko Sakana mailako gaiak jorratzen ditu, elkarrizketa, erreportaje eta bestelako artikuluen bidez –lehenengo alean, esaterako, Alerta Gorria eta Nafarroa 1512 taldeei eginiko elkarrizketa bana dago, eta bailarako Oi! mugimenduari buruzko



Xabi Arbizu, eskuetan Sakandar Oi! fanzinea duela.

erreportaje bat–. Dena den, Euskal Herriko nahiz nazioarteko Oi!-ari ere tokia egin dio Arbizuk: “Lehentasuna hemengoari ematen diot, baina beste esparru zabala-gobatzuk bazter utzi gabe. Izan ere, Oi! mugimendua bere osotasunean jorratu nahi dut”.

Bi hilabete behin argitaratuko da

Lehen botaldian 160 ale banatu ditu Arbizuk. Bere esanetan, ale kopuruak agian handiagoa behar-luke, baita orri kopuruak ere, baina nabarmendu du ezinezkoa dela, kostuagatik. Izan ere, kontuan izan behar da fanzinea doakoa dela, eta kostu guztiak Arbizuk bere patrikatik ordaindu dituela. Etorkizunari begira, arbizuarrak dio ez duela estrategiaz aldatzea baztertzen: “Hainbatek esan didate oso gustura irakurri dutela, eta pena eman diela irakurtzez berehala amaitzeak. Orri kopurua handitzea ez dut baztertzen, baina hori, gertatzekotan, tiradaren murrizketarekin batera gertatuko da. Horrela ale gutxiago egongo lirakeke eskuragarri, baina fanzineak kalitate gehiago izango luke”.

Argitaratze-maiztasunari dagokionez, egileak dio kasu honetan

ere kostuek eta argitalpena doakoa izateak eragin nabarmena dutela. Bere esanetan, doakotasunak eskuragarritasuna dakar baina, era berean, ezinezko egiten du kostuak sarrerekin orekatu ahal izatea. Horrela, fanzinea hilabete behin argitaratzea baztertzen du, “kostuak altuegiak izango lirakeelako”. “Nire ideia bi hilabete behin argitaratzea da. Maiztasun horrekin kostuei aurre egin ahal izango diet. Hortaz, hurrengo alea iraila amaieran edo urria hasieran aterako da”.

Non eskuratu daiteke?

- Irurtzun: Pikuxar tabernan.
- Uharte Arakil: Anaiak tabernan.
- Lakuntza: Sorgiñak tabernan.
- Arbizu: Karrika, Arrauts eta Argibiden.
- Etzarri Aranatz: Leku Ona tabernan.
- Iturmendi: Gaztetxean.
- Altsasu: Lezea tabernan eta Gaztetxean.
- Olazti: Barandi tabernan eta Gaztetxean.
- Iruñea: Herriko tabernan eta Su Berrin.

Altsasu

Altsasuko Udalak 56 nitxo egingo ditu



Altsasuko hilerrian nitxo gehiago egitea aurreikusten du Udalak.

Altsasuko Udalak hainbat lan eta inbertsio egitea onartu zuen here-negun egindako bilkuran. Inbertsio handiena hilerrian 56 nitxo berri egitea da (50.000 euro + BEZ). Udal hilerria kudeatzen duen Cemendena enpresak proposatutako tokian jasoko dira nitxo berriak. Bestetik, autokarabana-ko aparkalekua prestatzeko proiektua idatzi duen enpresari ordainketa egitea erabaki zen bilkuran. Udal talde guztiak ados daude autokarabanendako aparkalekua jartzea beharrezkoa dela, baina desadostasunak kokapenarekin dituzte (Dantzalekuko harezko futbol zelaia eta Zelandi kiroldegi ondoan). Nolanahi ere, proiektuaren erredakzioa egin duen enpresari ordaintzea erabaki zuen Altsasuko Udalak.

Bandarekin hitzarmena

Haize Berriak banda 2015eko erakunde soziokulturalen diru-laguntzen deialdirako aurkeztu zen eta espero baino diru gutxiagoa jaso zuen, deialdian izandako akats batengatik. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioan kontsulta egin eta gero, arazoa konpon-

tzeko modu bakarra Haize Berriak bandari diru-laguntza nominatiboa ematea da. Horrela, 2016an Haize Berriak bandak 15.377,76 euroko diru-laguntza nominatiboa jasoko du –2014an jaso zuen kopurua eta 2015ean jaso ez zue-na gehituz sortutako emaitza– eta ezinen du ohiko diru-laguntzen deialdira aurkeztu.

Bihar plenoa

Udal jardunak ez du etenik izanen eta bihar ezohiko udal bilkura izanen da. Lehenik, aurtengo festen egitarauaren onarpena aztertuko dute hautetsiek. Eta, ondoren, Sociedad Deportiva Alsasuari udalak duela 25 urte San Pedro etxebizitza taldeko 16. zenbakidun etxearen erabilera baimena luzatuko den edo ez aztertuko da. Kirol batzordean gaia aztertu zenean Geroa Bai eta PSN alde agertu ziren eta EH Bildu eta Goazen Altsasu kontra. Batzordeko presidentearen kalitatezko botoarekin iritsi da gaia bilkurara. 10 urteko luzapen proposamena da. EH Bilduk herriko kirol eta kultur talde guztiei zabalik dagoen deialdi berria egiteko eskatu du.

Beste inbertsioak	€
Ludoteka eta Bake epaitegiko leihoak berritu	12.000 + BEZ
Zelandi kiroldegirako makinaria erosteko	10.000
Bideen eta ibai ertzen kontserbaziorako	7.987,44
Udal baratzeen erabilera arautzeko proposamenaren erredakzioa	4.000
Basolanak egiteko proiektuaren erredakzioa	2.640

CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA
Sakanako hiltegian hildako haragia

Ongi pasa festetan!

Etxeko obradorea: tripota • tripotxa • mihia • kalluak • saltxitxak • frituak
948 576 067 • Herriko plaza z/g • LAKUNTZA

LARRAZA
TABERNA
ETXARRI ARANATZ

Kale Nagusia 25
948 460 162

IÑAKI
BIZARTEGIA
ILEPAINDEGIA

648 315 869
Nagusia 14
ETXARRI ARANATZ

MAPFRE

ASEGURUAK

Erkuden Urteaga San Roman
Etxarri Aranatzko ordezkaria
Erregistro zbk. 8572

948 461 055
eurteag@mapfre.com
Kale Nagusia 4
ETXARRI ARANATZ

Pilota

Ongai eta Bergera txapeldun Olaztin

XLV. Olaztiko San Migel Pilota Txapelketako nagusien finalean 13 tantotan utzi zituzten Azketa eta Atxa

Larunbatean XLV. Olaztiko San Migel Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren. Txapelketan barna 64 bikote lehiatu dira guztira, horietatik 21 biko afizionatuen mailan. Final estu eta entretenigarrietan, Mendozatarrak gailendu ziren hirugarren mailan, Jabi eta Pablo bigarrenean eta Beunza eta Iurgi lehen mailan. Ondoren jokatu zen partida nagusia, afizionatuen nagusien mailakoa. Alberto Ongai satrustegiarra eta Josu Bergera arruazuarra batetik, eta Azketa

XLV. Olaztiko San Migel Pilota Txapelketako finalak

3.maila Mendoza-Mendoza 18 / Ieregi-Mundiñano 16
2.maila Jabi-Pablo 18 / Borrega-Berat 12
1.maila Beunza-Iurgi 18 / Lopez de Zubiria-Garziandia 8
Nagusia Azketa-Atxa 13 / Ongai-Bergera 22



Olaztiko San Migel Pilota Txapelketako finalistak.

eta Atxa bestetik. Txapela Sakanan gelditzea nahi zuten pilotazaleek eta hala izan zen, Ongaik eta Bergerak 13 tantotan utzi baitzituzten Azketa eta Atxa partida bizi, alai eta lehiatuan.

Igandean, berriz, Sutegi-San Migel Txapelketako finalak jokatu ziren, kategoria txikikoak. Txapelketan barna Euskal Herriko eta Errioxa 222 bikote lehiatu dira. 10 final jokatu ziren guztira, ikuskizun polita. Beste behin, lan handia egin dute Olaztiko San Migel elkarteek eta Sutegi taldeek, baina fruitu ederra jaso dute.



Sutegi-San Migel Txapelketako finalistak, antolatzaile eta laguntzaileekin. UTZITAKOIA

Ricardo Lopez de Sabandori aitortza

Olaztiko Sutegi pilota taldeko kideak piztu zuen Olaztiko festetako suziria

Olaztiko Sutegi pilota taldeko Ricardo Lopez de Sabando irakasleak jaurti zuen Olaztiko festen hasierako suziria. Arbizuarra jaitzez, Altsasura ezkondu zen Lopez de Sabando eta betidanik pilota sustatzeko lanetan ibili da. 16-17 urte eman ditu Olaztiko Sutegi klubean pilota sustatze lanetan, eta 68 urterekin, erretiroa hartu du. Urte luze hauetan Olaztin egindako lan bikaina eskertu nahi izan dio Olaztiko Udalak eta horregatik Lopez de Sabandok jaurtiki zuen Olaztiko festak iragartzeko zituen txupinazoa.

Pozik eta hunkituta

Arbizuarra kontentua eta hunkitua zegoen, eta suziria piztu baino lehen, pertsona asko izan zituen gogoan. “Olaztin pilota sortu genuen lagun taldearen ordezkari moduan, gogoan izan nahi ditugu arrazoi ezberdinengatik hementzen dauden olaztiar guztiak. Baita urte hauetan zendu diren olaztiarrak, nire oroimenean oraindik ere oso presente daudenak: Pepe, Jacin, Belen, Alberto Lacalle, Aitziber Zubelzu eta tarte honetan joan zaizkigun guztiak. Eskerrik asko Sutegiko jokalariei eta familiei, eskerrik asko Sutegi taldeari eta moni-



toreei, eskerrik asko San Migel elkarte pilotari laguntzaileei, Alberto Zubelzu, Oron, Fermin... baita ere bazkariak antolatzen dituztenei, sarrerak saltzen dituztenei eta beste kide guztiak. Eske-

rrik asko Mikel Agirre lagun handiari, eskerrik asko Migel Martinez de Goñi lagun bereziari... Olaztiarrak gora Olaztiko jaiak!” esanda suziria piztu eta horrela hasi ziren Olaztiko festak.

EHko herrien arteko txapela Bakaikoarendako eta Gorritirendako



Euskal Herriko Herrien Arteko Txapelketako finalistak, Doneztebe eta Azpeitia.

Urte borobila izan da hau Doneztebeko Erreka klubarendako. Berria Torneo eta Nafarroako Herrien Arteko Txapelketa irabazi ondoren, larunbatean Euskal Herriko Herrien Arteko Txapelketa irabazi zuten. Ikusgarria. Egungo klub onenetakoa da Doneztebeko. Eta horretan zeresan handia dute Joanes Bakaikoa etxarriarrak, Jon Gorriti uhartearrak eta egun Garfen dabilen baina duela gutxira arte Errekako taldekide izan den Adur Lasa etxarriarrak.

Larunbatean, Euskal Herriko Herrien Arteko finala jokatu zuen Doneztebek Azpeitiaren kontra. Kadeteetan Azpeitiak irabazi zion Errekari, jubeniletan Doneztebek

hartu zuen menpean Azpeitia eta, hortaz, nagusien partidak erabakizuen. Joanes Bakaikoa etxarriarrak eta Jon Gorriti uhartearrak ordezkatu zuten Doneztebe, eta Etxaniz eta Murgiondo izan ziren Azpeitiko ordezkariak. Partida oso lehiatua izan zen, oso gogorra. Bi bikoak parez pare aritu ziren Bakaikoa eta Gorriti 9 eta 13 aurreratu zirenera arte. Azpeitiko Murgiondori nekea antzematen hasi zitzaion. Gorriti, aldiz, nagusi zen atzeko koadroetan eta horrek Bakaikoaril lasaitasuna eman zion, erremate ikusgarriekin aldea ateratzen hasteko. Horrela, 10 eta 22 irabaziz, garaipena eta Donezteberendako txapela lortu zuten.

Irristaketa



Ioseba Fernandez Europako Txapelketan

Igandetik Europako Irristaketa Txapelketak jokatzen ari dira Holandako Heerde hirian. Espainiako selekzionatzaile Garikoitz Lergak zortzi irristalari hautatu ditu bertan aritzeko, eta tartean dago Ioseba Fernandez irristalaria. Iturmen-diarrak arantza atera nahi du, aurreko Europako Txapelketetan ezin izan baizen aritu, lesionatuta zegoelako.

Triatloia

Sakandarrak primeran Azkoienen

Sakana Triatloi Taldeko Ekain eta Nahia Imaz eta Hegoi Lakuntza lehiatu ziren XII. Azkoiengo Triatloian

Larunbatean XII. Azkoiengo Triatloia jokatu zen, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria. Sakana Triatloi Taldeko hiru triatleta lehiatu ziren. Gizonezkoen benjaminen mailan Ekain Imaz bigarrena sailkatu zen, emakumezkoen kimuen mailan Nahia Imaz bigarrena eta gizonezkoen kimuen mailan Hegoi Lakuntza hirugarrena.

Txirrindularitza

Iruñeko Itzulia Etxarrin

Agorrilaren 4an, ostegunean, 17:00etan, Iruñeko Itzuliko 2. etapa jokatuko da Etxarriko festetan

Etxarri Aranazko festetan, hiru-garren urtez jarraian, jubenilen mailako Iruñeko Itzuliko etapa jokatuko da. Zehazki XXX. Iruñeko Itzuliko 2. etapa hartuko du Etxarrik agorrilaren 4an, ostegunarekin. Txirrindulariek 17:00etan ekingo diote Etxarri Aranazko Sari Nagusiari. Iruñeko Itzulia Ermitagaña klubak antolatzen du baina Etxarri Aranazko etapan Aralar Txirrindularitza Kluba ere ariko da antolakuntza lanetan.

4 eguneko itzulia
Juniorren 30. Iruñeko Itzulia agorrilaren 3an hasiko da, asteazkenean, Galaria industrialdeko Leclerc parean hasi eta Mutiloan despidituko den etaparekin (86,7 km). Bigarren etapa Etxarrikoa izango da (89,26 km), ostegunekoa, eta hirugarrena Sarri-gurenen jokatuko da (84,4 km), ostiralarekin. Laugarren eta azken etapa agorrilaren 6an jokatuko da, larunbatean, Iruñeko udaletxetik, Santo Domingo kale-tik aterata eta El Redinen despidituko dena (83,5 km).

Aurreko urtean Huesca La Magia taldeko Francisco Galvanek irabazi zuen Iruñeko Itzulia. Quesos Albeniz taldeko Eneko Aramendia iturmendiarrak laugarrena sailkatu zen, lehen nafarra. Etxarri Aranazko iazko etapa esprintean erabaki zen eta Ase-sores Navarra taldeko Alejandro Gomiz gailendu zen. Aurtun Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko txirrindulariak ari-



tuko dira Iruñeko Itzulian eta ahalik eta lan onena egitea, hori izango da euren asmoa.

Bi aldiz igoko dute Katea
Ibilbidea aurreko urteko bera izanen da. Ostegunean, 17:00etan Etxarritik aterata, Arbizura joango dira, Lizarragabengoatik pasa eta berriz atzera Etxarrira; ondoren, Etxarrenera joko dute, buelta hartuta Arbizutik atzera ere Lizarragabengoatik pasatuz Etxarritik Lizarragantantz egingen dute, Lizarragako portua igo eta Arbizutik jaitsiko dira; handik Lizarragabengoara eta Etxarritik Lizarraga aldera joko dute bigarrenez, Unanura heldu eta berriz ere Arbizura; Lizarragabengoatik pasa eta gero, Etxarri Aranazko helmuga izango dute helburu txirrindulariek, 89 km-ko proba gogorra osatuta.

Lakuntzan kadeteen XXV. Lakuntzako Saria
Lakuntzako festetan, agorrilaren 30ean, kadeteen mailako XXVI. Lakuntzako Saria-Sakana Fundizioa Sari Nagusia jokatuko da, 17:00etan. 60 km-ko proba izango da, Lakuntzan hasi eta despidituko dena eta Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria izango dena.

Urtasun Portugalen



Astelehenean 93. Ordiziako Klasikoan aritu zen Pablo Urtasun txirrindulari urdiain-darra, Funvic Soul Cycles-Carre talde brasildarrarekin. Orica taldeko Simon Yatesek irabazi zuen proba eta urdiaindarra 76.a sailkatu zen, 16:29ra. Gertuko probetan aspaldi aritu gabea zen Urtasun. Orain, asteazkenean abiatu zen Portugalgo Itzulian murgilduta dabil urdiaindarra.

Tourreko talde onenean aritu ondoren Olinpiadetara



Donostiako Klasikoan aritu eta Rioko bidea hartuko du Imanol Erbitik
Sky taldeko Chris Froomek irabazi du, merezimendu osoz, 103. Frantziako Tourra (89:04:48). 4:05 aterata dio AG2R taldeko Romain Bardet frantziarrari eta 4:21 Movistar Team taldeko Nairo Quintana kolonbiarrari. Hain zuzen ere, Jose Luis Arrieta uharte arakildarrak eta Chente Garcia Acostak zuzendutako Movistar Team taldeak jaso du Frantziako Tourreko talde onenaren saria. Tartean dago, jakina, Imanol Erbiti txirrindularia. Hiriberrikoa 108.a sailkatu da, 3:46:42ra. Erbitik ez du atsedean hartuko. Espainiako selekzioko Javier Minguez selekzionatzaileak Imanol Erbiti, Ion Izagirre eta Jonathan Castroviejo txirrindulariak hautatu ditu Alejandro Valverde eta Joaquim "Purito" Rodriguez liderren aldeko talde lanak egiteko hastear dauen Olinpiadetarako. Boskoteak bihar Donostiako Klasikoan parte hartuko du eta igandean hartuko du Rio de Janeiroko bidea. Hiriberriko txirrindulariak uste du beraiena "garai-penagatik borrokatzeko talde garrantzitsuenetako bat" izango dela.

Txirrindularitza

Txumaren Nazioarteko Hiru Egunak: Ailetz Lasa eta Iosu Etxeberria bikain

Ailetz Lasa hirugarrena sailkatu zen, probako lehen euskalduna eta Iosu Etxeberria zortzigarrena sailkatu zen, mendiko sailkapena irabazi zuen eta lehen etapa irabazi zuen

Burunda klubeko Ailetz Lasa zior-diarrak eta Aralar klubeko Iosu Etxeberria iturmendiarrak kadeteen mailako Txumaren Nazioarteko Hiru Egunak lasterketan parte hartu zuten, Nafarroako selekzioarekin.

Gauzak bikain hasi ziren, ostiraleko Berangoko etapa (63km) Iosu Etxeberriak irabazi baitzuen (1:28:24). Ailetz Lasa 15.a iritsi zen helmugara. Bigarren etapan, Berangon (57km), Koryo Car Hyundai taldeko Maties Gornals gailendu zen eta bera jarri zen liderra. Ailetz Lasa 16.a iritsi zen helmugara eta Iosu Etxeberria 27.a. Eta hirugarren eta azken etapan, Erandion (62 km), Zafiro Cycling Team taldeko Joan C. Ferrengailenduzen (1:27:03). Ailetz Lasahirugarrena



Ailetz Lasa, gorritz, podiumean. UTZITAKOA

sartu zen, 4 segundora, eta Iosu Etxeberria 15.a, 29 segundora. Zafiroko Joan C. Ferrerrek irabazi ditu Txumaren Nazioarteko Hiru Egunak. Ailetz Lasa hirugarrena sailkatu zen, 26 segundora, eta bera izan da probako lehen euskalduna. Iosu Etxeberria 8.a sailkatu zen, 38 segundora, eta mendiko maillota irabazi zuen. Taldekakoan, Nafarroako selekzioa laugarrena sailkatu zen.

Gonzalez garaile El Royon
Burunda Txirrindularitza Taldeko kadeteen mailako Mateo Gon-

zalezek eta Marcos Pisonek lasterketa izan zuten Sorian, El Royon. Gonzalezek irabazi zuen proba eta Pison bigarrena izan zen.

Maiza 14.a Zumaian
Juniorrak larunbatean Zumaian lehiatu ziren. Quesos Albeniz taldeko Xabier Maiza 14.a sailkatu zen eta bere taldekide Hodei Zia 57.a.

Txikienak Olaztin
Olaztiko festetan kategoria txiki-koen txirrindularitza lasterketak jokatu ziren larunbatean. 110 txirrindulari lehiatu ziren guztira.

Arku jaurtiketa



Jose Luis Iriarte, lehendabizikoa ezkerretatik. NAFARROAKO ARKU FEDERAZIOA

Nafarroa urrezkoa Espainiako 3D Arku Txapelketan

Tartean zegoen Jose Luis Iriarte arku jaurtitzaille sakandarra

Garilaren 9an eta 10ean Espainiako 3D Arku Txapelketa jokatu zen, Talavera de la Reinan (Toledo). Nafarroako selekzioak 15 kide zituen, 10

gizonezko eta 5 emakumezko, tartean Hiriberriko Jose Luis Iriarte, eta primerako lana egin zuen. Taldekako txapelketa irabazi zuen Nafarroak, eta Emakumezkoen Arkuan txapeldunordea izan zen.

Futbola

Futbol campusari agur

Astehenean hasi eta ostiralean despedituko da Mank-ek antolatutako futbol campuseko 2. txanda. Peio Goikoetxea eta Iokin Lobo entrenatzaileen zuzendaritzapean, 2001etik 2003ra jaiotako 28 neska-mutil trebatzen ari dira futbolean. Jolasen bidez eta teoria eta praktika uztartuz sakontzen dute futboleari, eta klasea despeditu baino lehen igerilekuetan freskatzeko aukera dute. Asteazkenean irteera egin zuten Anoetara, Errealako instalazioak ezagutzera.

Futbol campuseko 2. txandako partaideak



Oier Gastesi, Jon Aldasoro, Unai Santano, Javier Diaz, Nerea Arellano, Angel Bergara, Aitor Gasanz, Unai Rodriguez, Udane Vergara, Jon Lopez-Goikoetxea, Julen Tejedor, Axio Imaz, Jose Luis Martin, Saioa Sayas, Maider Granizo, Unai Calvo, Adur Kampo, Unai Manero, Xabier Manero, Alex Santano, Jon Perez, Iker Ramos, Beñat Mendez, Haritz Goikoetxea, Eukene Perez, Beñat Aldasoro, Eneko Galarza eta Aitor Lopez.

Automobilismoa

Goñi eta Lopez de Goikoetxea Lesakan

Larunbatean XIII. Lesakako Rallysprinta jokatu zen. 32 autok hartu zuten irteera eta horietatik 26 sailkatu ziren. Joseba Beola eta Jose Luis Irazoki (Mitsubishi Lancer Evo X) izan ziren azkarrenak (25:38.600). Gari-koitz Goñi pilotu etxerriarra eta Iñaki Arive (Renault Megane Coupe) 11.ak sailkatu ziren (27:44.800) eta Iban Lopez de Goikoetxea pilotu olaztiarra eta Xabier Andueza (Renault 5 GT Turbo) 12.ak (27:45.200).

QUEL HIRIA RALLYSPRINTA

Carlos Aldekoa pilotuak eta Javier Goikoetxea kopilotuak Quel Hiria Rallysprinteko proba utzi egin behar izan zuten errepidetikatera eta gero.



Senior mailako emakumeen taldea izanen du Altsasuk

Bi emakume talde izanen ditu Sociedad Deportiva Alsasuak: Futbol 8 mailakoa, kimuen eta haurren mailakoa, eta senior mailakoa

Emakumeen futbola sustatzeko lanetan beste aurrerapauso bat eman du Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA). Aurreko urtean Futbol 8 mailako emakumeen taldea sortu zuen Altsasuk, kimuen eta haurren mailakoa, eta orain senior mailako taldea sortzea zen erronka. SDAko futbol koordinatzaile Gorka Paskuak adierazi digunez, helburua lortu da. “Taldea sortu da eta 2016-2017 denboraldirako Altsasuk Nafarroako emakumeen senior mailako ligan aritzeko izena eman dugu. Baina oraindik taldea ez dago itxita. Senior mailan jokatu nahi duen Sakanako edo



Emakumeen Futbol 8 mailako Altsasu taldea.

inguruneke emakume orok du Altsasu taldean izena emateko aukera” nabarmendu du Paskuak.

Horrela, Altsasuk bi emakumezko talde izango ditu 2016-2017rako. Senior mailako emaku-

meentaldeko entrenatzaileak Endika Mendinueta arbizuarra eta Asier Arregi lakuntzarra izango dira. Orain arte Gorka Paskuak berak zuzentzen zuen Futbol 8 mailako emakumeen taldea, baina

SDA-nez dute zehaztu Paskuak lanbide horretan jarraituko duen edo beste entrenatzailearen batek hartuko duen ardura.

Agorrilaren 14an, Emakumezkoen Futbol Eguna

Sociedad Deportiva Alsasuak atzera ere Emakumezkoen Futbol Eguna antolatuko du, Nafarroako Futbol Federazioaren laguntzarekin. Goizean 3x3 Emakumezkoen Futbol Torneoa jokatu da. Bertan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute. Eta, arratsalderako, puntako futbol partida antolatu dute. Emakumezkoen Osasuna taldea desegin ondoren sortutako Mulier taldeak, 2. mailako Athletic izango du aurkari.

Osasuna-Eibar Etxarrin



Agorrilaren 12an, 19:00etan, San Donato futbol zelaian

Etxarri Aranazko futbol taldeak egindako lanari esker, lehen mailako futbola gura etorriko da. Izan ere, aurre denboraldiko lagunarteko partida jokatu dute aurtur lehen mailara igo den Osasuna taldeak eta lehen mailako aurreko denboraldian lan bikaina egin zuen Eibarrek. Etxarri taldeak bere garaian Osasunako lehendakari-ohia izandako Javier Bakaikoa Martich etxarriarra omendu nahi du, aldi berean Etxarri futbol taldeko laguntzaile izan zena. Eta omenaldi horrekin bat egin du Osasunak. Partida agorrilaren 12an jokatu da, ostiralean, 19:00etan, San Donato futbol zelaian. Jokoa hasi baino lehen omenaldia egingo zaio Bakaikoa Martichi. Etxarri Aranazko futbol klubekoek futbol zelaira oinez joateko deia egin diete etxarriarrei.

Areto futbola

Magna Gurpea eta Koxka tabernaren arteko lagunarteko partida

Agorrilaren 27an jokatu da, Olaztiko kiroldegian, Mitxel Agirre omentzeko

Areto futbolzaleek puntako partidaz gozatzeko aukera izango dute. Areto futboleko lehen mai-

lako ligan aritzen den Xota talde irurtzundarrak lagunarteko partida jokatu du berriki Espainiako Areto Futbol Kluben Arteko ANFS Kopako txapeldunordea izan den Koxka Tabernaren kon-

tra. Partida agorrilaren 27an jokatu da Olaztiko Erburua kiroldegian, 19:00ak aldera, eta Koxka Tabernako jokalariek betaranoenetakoa eta egun zuzendaritzan dagoen Migel Agirre “Mitxel”

olaztiarra omentzeko izango da, “areto futbolean izandako bere ibilbide luzeagatik eta areto futbola sustatzeko egindako lana eskertzeko. Guretako, gure bizitzako partidariak politena eta hungigarriena izango da” adierazi du Koxka Tabernako kide Jose Ramon Ramirezek. Olaztiko Sute-gi klubak eta Koxka tabernak antolatu dute partida hau.

GANUZA ANAIK
www.cocinasganuza.com
Sukaldeko altzari lantegiak Festa onak pasatzen
Bainu gelako altzariak | Horma armairuak | Etxetresna elektrikoak

Finantzatze aukera
c.ganuza@cocinasganuza.com

Zumardineta Industrialdea | 948 460 203 | Faxa: 948 460 673 | Etxarri Aranatz

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Aliprox

948 576 246
Larrañeta z/g
LAKUNTZA

xapatero
taberna

Ongi pasa festetan!

948 460 162 • Etxarri Aranatz

MENDIGAIN URDEIAZPIKORAK

948 576 286
Mendigain kalea, 5
LAKUNTZA



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Hurrengo Guaixea irailaren 2an argitaratuko da.

Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era
edo hots egin 948 564 275 telefonora



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza, 23-1 Altsasu · 948 564 275 · gk@gkomunikazioa.eus



guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 ERRETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonia: 948-56 42 75
Posta elektronikoa:
iragarki@guaixe.eus

OPATUTAKOAK/GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galduta-ko gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraz-
tunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta pati-
nak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

OHARRAK

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariek aldeko abenduaren 30 eki ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119.

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia.

Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeuskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Euskaldun bat euro bat.

Nafarroako erresuma-koa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskal-
dunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harreman-
ak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.

Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965.

Volkswageneko langileendako deia.

Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia biga-
rren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat funda-
zioak “Lau zango milaka irri” programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren alde-
ko botoa ematera animatu dituzte.

GoiEner Iruñean.

Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabe-
teko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informa-
zioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza.

Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es.

Mintzakide proiektua.

Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Euskonwes ekonomikoki laguntzeko kanpai-na.

Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpe-

nak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan.

Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu.

Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Odol-emailak.

Abuztua: Ilean Arbizu 17:00-18:00, eta Uharte Arakil 19:45-20:45; 16an, 17an eta 18an Altsasun 17:00-20:30, 19an Altsasun 9:30-13:00.

Errefuxiatuendako material bilketa.

Altsasuko Frontoi zeharbidearen 14an udalak duen bajeran jasoko da, astegunetan, 11:00etatik 14:00etara. Ayuda Humanitaria Navarra en Acción, AHNAN, honakoak eskatu ditu: arropa, umeendako beharrezkoak diren arropa, jantziak, txupeteak, pixoihalak, jatekoak (gailetak, hautsa-esnea, umeendako pototxoak), haurrendako gurdiak, eskola materiala eta migratzaileendako onak izan daitezkeen bestelakoak ere.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua.

Sakanako Enpresarien Elkarateak langabeei eta lan bila dabilztzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonia.

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela.

50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila parega-beak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.

Eliza katolikoak,

Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publi-
koen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda.

Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo horni-tzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako den-
dan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoe-na: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroz, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, gara-gardoa, lekaleak, opzina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.

Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko maki-nak; ordenagailuak; kanpin dendakÖ Nora era-
man: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkene-tan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonia.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan.

Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahizko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hiz-kuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen

gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua.

9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00eta-tik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakana-mank.com posta elektronikoan.

JAIOTZAK

- Mara Asurabarrena Katarain, uztailaren 16an Lakuntzan-
- Amaiur Flores Berastegi, uztailaren 21ean Arbizun.

EZKONTZAK

- Ibai Arrese Razkin eta Maitane Ezkurdia Galarraga, uztailaren 23an Arbizun.

HERIOTZAK

- Viviano Senar Andueza, ekainaren 22an Lizarragan.
- Mikaela Berastegi Lasa, uztailaren 21ean Lizarragan.
- Pedro Pozueta Gastaminza, uztailaren 22an Olaztin.
- Julia Cilla Montero, uztailaren 23an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

kultura >>

THE TXORIPANESEN BIGARRENA: Etxar-
rango laukote gazteak jendaurreko biga-
rren agerraldia egingen du bihar. 13-15 urte
bitarteko nesken laukoteak abestia auke-

ratu du eta haren play back emanaldia es-
kainiko du. Udaberriko festan estreinako
esperientzia arrakastatsua izan zen.

Txep, txep, txep

Herriaren eta musika tal-
deren baten arteko fidel-
tasun harreman bat bai-
no gehiago ikusten da
urtetik urtera festen egitarauak
irakurritz gero. Hori gertatzen da
Arakil aldean Txep taldearekin.
Festak non, Txep han. Edo kasik.
Oskar Garziak (baxua eta aho-
tsa), Hektor Escudero (gitarra eta
ahotsa) eta Igor Escudero (bate-
ria) osatzen dute Txep taldea.
“Ahoz ahokoak funtzionatzen du.
Jendeak ezagutzen gaitu eta dei-
tzen gaitu”. Arakil, Imotz, batzue-
tan Iruña, Uharte Iruña, Taxoare...
plaza horietan jo izan dute.

Hirukoak beste taldeen ber-
tsioak jotzen dituzte eta “norma-
lean jendea gustura egoten da”.
Oholtza gainetik rock and rolla,
euskal rock and rolla, heavya,
makarrak, punkiak diren doinuak

aletzen dituzte. Estiloetan erreper-
torio anitza dute eta emanaldietan
estiloak nahasten dituzte. Eskain-
tzen duten musika estiloen nahas-
keta jendearen gustukoa dela pen-
tsatzen dute.

Haien gustuko kantak dira
jotzen dituztenak. “Abesteko kan-
tak dira. Batzuetan emanaldia
karaokea bihurtzen da. Herriko
jendea gurekin abesti bat edo bes-
te kantatzera edo jotzera anima-
tzen dugu. Kolaborazioak izaten
ditugu eta nahiko giro polita izat-
en da”. Herri gehienetan ezagu-
nak dituztenez, “beti bakarren bat
animatzen da”. Hala, “dibertiga-
rriagoa” da. Larunbatean Txep
Etxarrenen ariko da.

Taldeaz

Duela 20 bat urte sortu zen Txep,
hirukoak 16 urte zituela. Garai



hartan Irurtzunen “sekulako musi-
ka kultura zegoen”. Orduan ikusi
zizuten taldeak zerrendatzen hasi
dira: Nahi ta nahiez, Sarraski,
Indecisión, Doctor Cronismo...
“Musika kulturak jarraitzen du,
oraindik taldeak daude”. Musika
giro harrekin “pikatu” zirenetal-
deak sortzea erabaki zuten. Oskarrek
eta Igorrek euren burua musikari
“zaletu” gisa definitu dute, Hector

“kontserbatorioko musikaria da”.
Taldea sortzeko beste arrazoi bat
aitortu digute: “orduko musikariek
nahiko ligatzen zutela ikusten
genuen eta gu horretan eskas gen-
biltzanez, saiatu behar genuen”.

“Irurtzunen, txosnetan, pixka
bat jo genuen. Baina gero 15 urtez
utzi genuen”. Ikasketek eta lanak
musikatik baztertu zituzten. Koa-
drilako baten ezkontza baterako

berpiztu zen taldea. Ospakizune-
an hiru abesti jotzea erabaki
zuten. 2011 zen. Eta ordutik, “fes-
tarik festa”, ez dira gelditu. Face-
book-en mila lagun dituzte. “Kon-
tzentuetan ez. Kontzertuetan 30
egonda, nahiko”. 670 959 875
(Oskar) telefonoaren bidez edo
Facebook bidez jar daiteke haie-
kin harremanetan.

+www.guaixe.eus


bazterretik

Jose Luis Asensio

Carlos Gimenez eta gerra zibila

80 urte bete dira Espainian gerra
zibila hasi zela. Gerrateguak ondo-
riolatzak dituzte gizartearen, beti. Car-
los Gimenez 1941. urtean jaio zen.
Komikigile honek goizter galdu
zituengurasoak arazoak ezberdinak
direla eta. Umezurtz-etxe ezberdi-
netan bizi izan zen 5 urte zituene-
tik 13 urte bete arte, nahiz eta, noi-
zean behin, familia batek ere etxe-
an jaso. Garai hartan Juan Garcia
Iranzo-ren *El Cachorro* komikia
ezagutu eta zaletasuna sortu zitzaion
komikien inguruan.
Sarrera honen ondoren errazago
ulertzen da Carlos Gimenezek ume-
zurztegiaren giroa horren ondo des-
kribatzea. Nire oso gustukoa den
Paracuellos komikian, toki haue-

tako bat fikzio moduan azaltzen
da. Kontakizun motz ezberdinen
bitartez, zenbait adingabekoen
haurtzaroa nolakoa izan zen azal-
tzen saiatzen da Carlos, ziurrenik
berak bizi izan zituen zenbait anek-
dotaz zipriztinduta, nahiz obra
autobiografikoa ez izan.
Pertsonaiak guztiz estereotipa-
tuak agertzen dira. Hala ere, asma-
tutakoak direnik ezin dut sinistu.
Badira bi gauza istorio gehienetan,
haur baten ikuspuntutik beti, egi-
leak lehenengo pertsona guri hitz
egiten digula pentsatzeko nahiko-
ak direnak. Kontakizun gordinak
dira, baina bakun eta sinesgarriak.
Bestalde, beti agertzen da nolabai-
teko xamurtasuna orrialde guztie-
tan, nostalgiaz beteriko memoriak
bailitza.
Lehenengo aldiz irakurri nuenean,



irakurketak guztiz bahitu ninduen.
Liburuaren erdialdera, gogoan dut,
nola bi haurrek beraien askaria (ogi
koskor bat), ohe azpian gordetzen

duten bi aste betez. Beste aste bat
pasata, dena batera jan ondoren
sentituko duten betekada irudika-
tzen dute arratsaldero, ogia ezku-
tatzen dutenean. Irakurleak hau-
rren ilusioa sentitzen du irakurtzen
duen heinean. Eta azkenean, ape-
zak ogia aurkitu, eta zaplastako mor-
doa eman ondoren, zenbait egu-
netarako askaltzea debekatzen die,
eta egunero tripazorriak jota ikus-
ten dute haien lagunak nola jaten
duten beraien askaria.
Baditu beste liburu asko argitara-
tuta ere. Bai gerra zibilaren ingu-
ruan –*Malos tiempos, 36-39*–, edo
besterik gabe, gizarteari buruz.
Hauen artean *Barrio* ere oso
gomendagarria. Bertan, haurtzain-
degitik atera ondoren gerra oste-
an bizi izan zuen giroa deskriba-
tzen da, auzo pobre batean.

Malos tiempos 36-39, setiatuta zego-
en Madril hiriburuan gertaturiko
istorioak biltzen ditu gerra zibila
bitartean. Zenbait, benetakoak
–berari zuzenean kontaturiko anek-
dotak– eta zenbait eraldatutakoak.
Eta *Paracuellos* komikiaren ideia
berdina jarraituz, hiriburuaren des-
kribapen pseudo-dokumentala egi-
ten du, kontakizun laburrez baliat-
uta. Egia da alderdi errepublika-
rrearekiko joera adierazi duela;
baina, hala ere, zenbaitetan sala-
tzenditu komikian eresoldadu erre-
publikarren ekintzak. Esan beza-
la, guda batean, gizartea da beti
galtzailea.
Ez daberlan gomendatzen dudana
lehenengo aldia, baina oraindik
ezagutzen ez baduzu, ez galdu
aukera eta bilatu hauetako komi-
kiren bat udan irakurtzeko.

9 lagunendako

TAXIA

Jon Kordon



948 500 388 / 629 428 025

IRURTZUN

LARRAZA
ARDOAK



948 460 014

Zugarreta, 2 • Etxarri Aranatz

Arbizu

Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com

Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

liburu gomendatuak

ARKATZ LIBURUDENDA



TXISTU ETA BIOK

Algaida
Egilea:Juan Luis Zabala
Orriak: 232

Berria egunkarian kultura arloko kazetaria da *Txistu eta biok* nobelako pertsonaia nagusia. Albaitariak Txisturi, etxeko txakurrari, gaitz bat diagnostikatu dionean, harekin duen harremanaz idazten hasi da. Lanetik aparteko idazketa libreaki gustua hartuta, bere beste hainbat kontu jorratzeari ekiten dio. Kulturarekiko sentitzen duen desatxikimendua du aipagai nagusietako bat; desatxikimendu horren frogatzat du, adibidez, José Saramagoren heriotzaren berri Radio Marca entzunez jakin izana. Ilunabar batez, Txisturekin etxe inguruko paraje bakarti batean paseatzen ari dela, hilotz bat aurkitu, eta horrek, ustekabea, trama poliziako patetiko samar batean barneratuko du kazetaria. Tramako gertakarien kontaketa gai askori buruzko gogoetekin uztartuko du: konpromiso politikoa, Euskal Herriko gatazka, xenofobia, aporofobia, feminismoa, zoriontasuna, alienazioa... “Disimulurik gabeko alter ego bat baliatuz, neure buruaren autokritikatik abiatutako kritika soziala egiten saiatu naiz”, adierazi du egileak.

LA BANDA DE JUBILADOS QUE CANTÓ DOS VECES BINGO

Rocabolsillo ficción-bestseller
Egilea:Catharina Ingelman Sunberg
Orriak: 352


Jubilatuen Bandak egoitzatik ihes egiten du, ordezko hortzak soinean eta gurpildun aulkien gainean, Las Vegaseko kasino ospetsuen segurtasun sistema guztiak gaindituz dirutza lortzen du. Pekatuaen Hiriko neonezko argiek itsuturik, beraien helburu bera duen beste talde bati aurre egin beharko diote. Eleberri lotsagabea, desira handikoa non dirua sekula ez den hiltzen. Zentzugabeko kontakizun honek barrea sorraziko ditu eta gazte sentiaraziko ditu.

LA LENGUA DE LOS SECRETOS

Rocabolsillo
Egilea: Martin Abrisketa
Orriak:528

Martin gazta batean jaio zen: bere jaioterriko Arrigorriaga meatzez zulatuta zegoen. Hainbat urtez bere biztanleak oraindik behiak zaintzen eta sekretuen hizkuntza hitz egiten zuten lurralde batera lan egitera joanak ziren. Ume bat izanik, Alemaniako pilotuek bere herria nola zulatzen duten ikusten du. Bere gurasoengandik aldentzean, bere anai arrebeekin aurrera egin beharra du eta hondamenditik ihes egin. Lehenik Santanderrera eta aurrerago Frantziako Alpetako herri txiki batera, gerrateko ume moduan.

LIBURUNDA LIBURUDENDA



BOST IZARRAK: URPEAN

Ibaizabal
Egilea:Andreas Schlüter
Orriak: 144

Aintzira batean, igeriketa-lasterketa baten erdian, norbait laguntza oihuka eskatzen ari dela entzuten du Ilkak. Berehala, buelta ematen du, eta garaiz iristea eta Thuy gaztea itota hiltzetik salbatzea lortzen du. Baina ahalegin horren saria ez da batere ona: Thuy salbatu eta gutxira, zenbait lapurreta misteriotsu gertatzen dira. Eta, zerbait desagertzen den bakoitzean, Thuy gertu dabil. Ilkak ezin du sinetsi Thuy tartean dabilenik. Baina Bost Izarren taldeko kide guztiak ez dira iritzi berekoak. Girotzea:Alemaniano ikastetxe batean. Gaia:Igeriketa eta lapurretaren bitartez atentzioa emateko desioa. Bildumaren laburpena:Bost Izarrak Alemaniako Batxilergoko institutu bateko bost lagun dira, hamaika eta hamabi urte arteko hiru mutil eta bi neska, eta etorkizuneko kirolari gazteak sustatzeko programa berezi batean daude. Gazte bakoitza nazionalitate batekoa da eta kirol desberdinetan aritzen da: Linh (11 urte dituen bakarra) vietnamdarra da eta judoka; Ilka, australiarra eta igerilaria; Michael, estatubatuarra eta dekatloian aritzen da; Yabali, hegoafrikarra eta iraupen erdiko lasterkaria; eta azkenik, Lennart, alemaniarra da eta saskibaloian, mahai tenisean eta beste pilota joko batzuetan aritzen da, eta abiadurako lasterkaria ere bada.

ITSASERTZEAN

Ttarttalo
0-4 urte

Itsasgoran, olatuak hondartzan gora abiatzen dira. Itsasbeheran, aldiz, itsasoak hamaika altxor miragarri uzten ditu itsasertzean: maskorrak, itsas belarrak, karramarroak...

LEIZEZULOKO MISTERIOA

Ibaizabal-Gaztetxo!
Egilea:Iñaki Zubeldia
Orriak: 152

Gaia: Ainhoa eta haren lagun-taldeak, aitonaaren laguntzarekin, Arrikruzko leize-zuloan dagoen lehoikumearen hezurdura bilatu eta amaren ondora eramango dute. Girotzea: Gaur egun. Arrikruzko leizezuloan lehoikumearen hezurdura bilatu eta amaren ondora eramateko egindako ahalegina. Laburpena: Ainhoak 10 urte ditu eta ametsetan eginkizun zaila jaso du: Arrikruzko leize-zuloan dagoen lehoikumearen hezurdura bilatu eta amaren ondora eramatea, haren babesean egon dadin beti. Lan zaila Ainhoak eta haren lagun-taldeak hartzen dutena, inork ez baitie sinesten. Mozkor batzuk ia pikutara botako dute nesken asmoa. Hala ere, etsi gabe jarraituko dute hasitako lanean. Abentura hunkigarria neska horiena. Lortuko ote dute beren helburua?

Guaixe udako argazki onenaren bila

Udan ateratako argazkiak
www.guaixe.eus web guneraren bidez aurkezteko aukera izanen da gaurtik irailaren 9ra arte

Udan oporrak, motzak edo luzeak, hartu eta bestelako erritmo batean bizitzeko aukera izaten dute askok. Sakandarrak ibarrean bertan gelditu edo mundua eza-gutzeko aukera baliatzen dute. Eta egonaldi horien oroigarri bihurtzen dira batean eta bestean egin-dako argazkiak. Are gehiago orain-go telefono mugikor batzuk argazki kamera batzuk baino kalitate hobe eskaintzen dutenean. Bigarren urtez Guaixek Saka-



nako Udako Argazki Lehiaketa antolatu du. Horretarako, www.guaixe.eus web orrian atal berezia sortu du eta han sakandarrak euren oporretako argazkiak

igotzeko aukera izanen dute. Opor mota adina argazki izan daitezke, denetarikoa. Eta sakandarrek bidali ahala web orrian argazki galeria moduan ikusgai izanen da.

Oinarriak

Argazkiaren azalpena: Nonetanoiz aterata dagoen. Argazkiko gaiak iradokitako esaldiren bat ere idatzi daiteke. **Argazkiak bidaltzeko epea:** garilaren 31tik irailaren 9ra arte (biak barne). **Argazkiak guaixe.eus webgunean** lehiaketarako atondutako formula-rioaren bidez bidaliko dira. **Argazkiek gehienez 5 MB** izan behar-kodituzte. **Argazki guztiak guaixe.eus-ko argazki galeria baten egonen dira ikusgai. Sakanan jaio edo bizi den orok** parte hartu ahal izanen du. **16 urtetik gorako** sakandarrek parte hartu ahal izanen dute. **Argazkiek jatorrizkoak, originalak, eta argitaratu gabek** izan behar dute. **Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean** aurkeztu daitezke.

Udako argazkiak izanen dira: berdind aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak. **Parte-hartzearekin egileak aitortzen du** bidalitako argazkiaren eta horren edukia ardura duela. Hortaz, parte-hartzaile bakoitza izanen da hirugarren baten eskubideak ukatzearen gerta litezkeen erreklamazio guztien arduradun bakarra, honen barruan sartuz muga gabeko jabetza industrialeko edo intelektualeko lege-jabetza eta irudi-eskubideak. Beraz, lehiaketako parte-hartzaileak Guaixe eta Guaixe fundazioa kalte gabe utziko duela hitzematzen du. **Antolatzaileek beren gain hartzen dute** argazki batzuk lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea, giza eskubideen kontrakoak direla uste badute: bor-

tizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa, ohorezko eskubidea, bakoitzaren intimitatea eta familiarena edo bestelako eskubide urraketak adierazten dituzten lanak ez dira onartuko. **Irabazleak** nortzuk diren irailaren 23an jakinaraziko dugu, Guaixe aste-karian eta **www.guaixe.eus**-en. **Bi saritu izanen dira:** webguneko era-biltzaileek aukeratutakoa eta Guaixe-ko epaimahaiak aukeratutakoa. Lehenak sari sorpresa saria izanen du eta bigarrenak sari sorpresa. **Webgune bidezko bozketa irailaren 9an hasiko da**, behin argazki guztiak jasota. Hamar egunez egonen da bozkatzeko aukera.

Oinarriak osorik: **www.guaixe.eus**

Historiaren zilborra: Ihabar



Agorrilaren 20an, larunbatean, 22:00etan eta agorrilaren 21ean, igandean, 21:30ean

Planetaren sorreratik hasi, bonbillaren aurkikuntzarekin segi eta gaur egunera arteko historiako beste makina bat kontu... guztiak Ihabarren pasa dira. Eta guk jakin ez! Horregatik, Ihabar historiaren zilborra da. Hori da, gutxi asko, Ihabarko antzerki tailerrak aurtentzertuko duen lanaren argudioa.

Jon Barbarin zuzendariaren esanetara joan den astean hasi ziren antzezlanaren prestatzen. Barbarinek azaldu digunez, hainbat esketxez osatutako pieza izanen da. Eta bakoitzean Ihabarko, hau da, munduko historiaren pasarte baten berri kontatuko da. Aurke-le batek, zientzialari erotik asko duenak, aurkeztuko ditu esketxak. Zuzendariak aurreratu duenez, obrak keinu antzerkitik asko izanen du. Taldean lan egiten ari badira

ere, obrak hainbat esketx dituenaz, aktore talde txikiekin lan egiteko asmoa ere badu Barbarinekin. Izan ere, 18 bat aktore ditu zuzendariak bere esanetara; 14 ihabardarrak dira, uhartear pare bat eta irurtzundar eta satrustegiar bana daude. Bederatzigarren aldia da antzerki tailerrak festen aurreko asteburua bere emanaldiekin girotzen duena. Tailerrak Arakilgo egunean ibarreko udalaren omenaldia jaso zuen. **+www.guaixe.eus**

asteko >> : eguraldia

ostirala

larunbata

igandea

astelehena

asteartea

asteazkena

osteguna

euria: 5%

euria: 10%

euria: 15%

euria: 25%

euria: 10%

euria: 10%

euria: 10%

Min: 13 Max: 27

Min: 15 Max: 29

Min: 15 Max: 23

Min: 14 Max: 21

Min: 13 Max: 25

Min: 13 Max: 25

Min: 14 Max: 24

temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	27.5	12.5	4.8
Etbarri A.	25.3	13.2	1.7
Altsasu	25.5	13	8.1
Aralar	18.8	8.9	26.4
Urbasa	21.5	13	8.8

ilargiaren aldia>>

ilberri

ilgora

ilbete

ilbehera

2

10

18

25

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253

Arkinoturri Industrialdea • Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide sarituak

1.- Naroa Urrestarazu Madina (Altsasu)

2.- Xabier Ulaia Beltza (Etxarri Arantz)

3.- Ainhoa Etxeberria Pikabea (Orereta)

4.- Erkuden Flores Mazkianan (Altsasu)

Ekain berri

AQUARIVM

CAMPING ARTAZA

lacturale

G gaztezu

>> 11 galdera

Olga Martinez de Lagran

Psikologian doktorea

Testua: Maialen Huarte Arano



Abuztuaren 29ra arte

ITXITA

oporretan gaude

gk

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107

gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

1. Ikastaroa emanen duzu Nafarroako unibertsitateen udako ikastaroen baitan.

Norberaren burua zaindu hobeki zaintzeko: min kronikoa duen gaixoauren aurrean erantzun emozionalen kontrola izeneko ikastaroa izanen da. Minari nola aurre egin eta eritasun kronikoa duten herri-tarrek gaixotasuna nola landu aztertuko dugu.

2. Minari nola egiten ahal zaio aurre?

Modu askotara. Min kronikoari buruzko ikuspegi zabala eskaini-ko dut ikastaroan. Eritasun asko daude eta min kroniko ugari. Horiek tratatzeko modu desber-dinak aztertuko dituen norberak duen min hori nola arindu, egunero-koan nola aurre egin eta erita-suna nola txikitu aztertuko dugu.

3. Min kronikoa duten gaixoei zuzenduta dago ikastaroa?

Osasun arloko profesionalei eta eritasunen bat duten horiei zuzen-dutakoa dela esanen nuke. Guz-tiek izanen dute zer ikasi eta zer hausnartu. Min kroniko horretan emozioek zer nolako jokaera eta eragina duten aztertuko dugu.

4. Emozioek zertan handitu dezakete mina edo nola arindu?

Eragin handia du min kronikoa duen pertsonak bere sentimen-duak edo emozioak nola kudea-tzen dituen. Gai ote den emozio horiek kontrolatzeko. Etengabe ari bada pentsatzen zenbateko mina duen, betirako izanen duen mina izanen dela... Ezkor jotzen badu, frustrazioa, estutasuna, tristezia izanen ditu egunerokoan. Horrek

arazoa hazi egingen du. Aldiz, min horretan fokatu beharrean norberaren pentsamendua, aurre egiteko ekintzak gauzatuz edo pentsa-mendu positiboak gailenduz, bur-muina ez da etengabe minaren pentsamenduetan murgilduta izan-en eta, horregatik, nolabait, txi-kitu egingen da min hori.

5. Bestelako soluzioa izan daiteke emozioak kontrolatzearena?

Ohiko medikuntzak eskaintzen duenaren osagarria da emozioak kontrolatzea mina kontrolatu ahal izateko. Eritasun horren atzean zer dagoen aztertuko balute, askok, agian, irtenbidea errazago izanen lukete. Askotan, min horren atze-an iraganean izandako zerbait dago, eta ezagututa min horren zer-gatia errazagoa da mina bideratze-ko irtenbideak bilatzea.

6. Emozioek, hortaz, tarte handia izanen dute ikastaroan?

Bai, lau ardatz izanen ditu ikasta-roak. Batetik, jendeak ulertu behar du zer den mina bera, nondik dato-rran eta zerk sortzen duen; biga-rrerik, eritasuna duen horri infor-mazioa eman behar zaio, boterea berreskuratu behar du eta ulertu behar du zer den gertatzen zaio-na; hirugarrenik, min horren atze-an zer dagoen jakitearen garran-tzia aztertuko dugu eta, laugarre-nik, behin ezagututa zerk sortzen duen min hori, horri nola aurre egin ere ikasiko dugu.

7. Ikastarora doanak zer ikasiko du?

Min kronikoa baretzeko bakoitza-ren eskudauden mekanismo erra-zak. Hasteko, arnasketa ariketak

egiten ikastea, bestetik, emozioak kontrolatzeko moduak eta, azke-nik, burmuinak min kroniko horretan duen jarrera zernolakoa den jakitea.

8. Informazioa behar du gaixoak. Ez du nahikorik jasotzen?

Askotan, medikuek gaixotasun bat duzula esaten dizutenean, azaleko datu batzuk baino ez dizkizu ematen. Eta datu bakan horiekin gerta-zen da gaixoa, ia galderarik egin gabe eta medikuak ematen dizkion pilula edo hobekuntzarako metodo-ak besterik gabe onartuz eta eginez.

9. Zertarako beharko luke gaixo batek datu gehiago?

Beharrezkoa da gaixotasun horren inguruko ahalik eta informaziorik handiena izatea, eritasuna bera ez-a-gutzeko, norberaren gorputzari nola eragin diezaiokeen jakiteko eta ahalik eta ondoriorik txikienak izateko irtenbideak bilatzeko.

10. Emozioak eta mina. Gizartean barnerratuago izan beharko genuke zerikusirik handia dutela?

Erlazio zuzena dagoela jakin behar-ko genuke. Emozioak kontrolatuz, nahiz erabat ezingo dugun bazter-tu mina, kontrolatzen jakinen dugu. Emozioek zerk gabe, hobe-ki egingen zaio aurre eta min horre-tan atentzio guztia finkatu gabe ere txikitu egingen da min sentsazioa.

11. Irailean izanen da ikastaroa Iruñean.

Kondestablearen Jauregian, irai-laren 5etatik 10era arratsalde, 16:00etatik 20:00etara. Izena eman behar da, 20 plaza baino ez dau-delako.